



ARGIA

PORTUGAL, HERBEHEREAK, ITALIAKO LURRALDEAK, ARGENTINA,
KOLONBIA, MEXIKO, PARAGUAI, VENEZUELA, TXILE, COSTA RICA,
GUATEMALA, HONDURAS, NIKARAGUA, PANAMA, PERU, EKUADOR,
BOLIVIA, KUBA, PUERTO RICO, FILIPINAK, RIF, MAROKO,
EKUATORE GINEA, IFNI, MENDEBALDEKO SAHARA...

HERRIALDE BAT GEHIAGO GALDUKO DU ESPAINIAK?

KATALUNIAK INDEPENDENTZIA ALDARRIKATU DU

Prozesu konstituziogilea eta Espainiaren berzentralizazioa aurrez aurre

Bide-orria berrikusteko unea: nola erantzun Rajoyk inposatutako hauteskundeei?



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Mezulari prekarioak kooperatiban antolatzen

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Inma Errea
- 19 Rosa María Martín Sabarís
Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 Irati Elorrieta



250 hour inguru etortzen dira Euskal Herrira urtero haurdunaldi subrogatuaren bidez. Subrogazioa arautzeaz eztabaida sutsua dago.

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
DEBBIE BOOKCHIN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: ANC

SAKONEAN

- 12 | Didier Lestrade: "Gaitzitzen nauen arrazismoa dago Frantziako gay komunitatean" / Jenofa Berhokoirigoin
- 21 | Katalunia: Errepublikak eta autonomismoaren artean jarraitzen du prozesuak / X. Letona, E. Ezaguirre, L. Arbelaiz
- 27 | Mingaina, gorputzaren mapa / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 28 | "Halloween ospatzeari esker jakin dugu gurean ere kalabazekin jolasten zutela duela ehun urte" / Andoni Mikelarena
- 30 | Udako barnetegia: Etiopiarra, austriarra eta bi hungariar euskara ikasten / Miel A. Elustondo
- 32 | Haurdunaldi subrogatua: Bai edo ez baino harago / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Itziar Navarro: "Bertsolariak lortzen badu hitzen arabera doinua moldatzea, sorpresa bikoitza" / Estitxu Eizaguirre Kerejeta
- 46 | Pelax: Talka, didaktika eta komunitatea / Xalba Ramirez

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizaguirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).





PANORAMA

Garaipenaren bizipoza

Batean, azpikontrataturako zahar etxeetako langileak, mozkinen arabera (des)araututako sektore feminizatuan. Bestean, patronala, prekarietatearen aparretan eroso, eta Bizkaiko Foru Aldundia, ez-ikusiarena egiten. Horrela bi urtez, borrokan, lan baldintzak duintzeko. Eta urtebetez greban. Erraz esaten da. Beste hainbat kasutan bezala, botere politiko eta ekonomiaren arteko ohiko elkarlana langileen aldarrikapena itotzen saiatu da. Oraingoan, ordea, bizitza zaintzen dutenek irabazi dute. Beraz, denok atera gara irabazle.

Argazkia: ELA sindikatua · Testua: Axier Lopez

Pasaiako Badia dokumentala estreinatu dute, 1984an Pasaian gertaturiko segadari buruz.



“Castellsek esan zigun moduan, gauza bat da egia juridikoa, eta beste bat egia soziala. Egia sozial hori zabaltzea eta ahalik eta jende gehienarengana iristea da helburua”

Yuri Agirre, zuzendarietako bat (*Berria*)



“Egin beharreko memoria ariketa gogorra ‘Pasaia

@iraitz_24



“Lan ederra estatu indarkeriaren pasarte ilunenetako bati buruz”

@idurrecki



“Gogorra. Negar egin dugu, barru guztiak mugituta gelditu gara. Benetan ikusi beharrekoa”

@ainlarra



KANALDUDE

Kanaldude telebistak jauzi kualitatiboa eman dezake laguntza publiko berri bati esker

Miren Osa Galdona

@Mirentx_U

Garrantzitsua da Kanaldude kateak Akitania Berriko eskualdearekin sinatu duen akordioa: 243.000 euroko laguntza jasoko du urtean, hiru urtez, eta egunero zuzeneko saio bat izango du.

Ximun Carrere zuzendariak *Ipar Euskal Herriko Hitzari* adierazi dionez, laguntza handia da eta garapen bidez hausnartzera eramango ditu. Orain arte bidelagun izandako laguntzaileak ez dituzte albo batera utzi nahi: “Bilkura bat antolatuko dugu laguntzaile guztiekin ikusteko nola segitzen dugun, eta atxikitzeko telebista parte-hartzailearen izaera”.

Horretarako, ikus-entzunezko ekonomia garatzeko konpromisoa hartu du herri telebistak. Kanaldude erdigunean kokatuz, Hego Euskal Herriko sortzaileekin ere elkarlanean hasteko prest daude “elkarrekin mugaz gaindiko xedeak garatzeko”.

Laguntza bera jaso dute TV7 telebistak, Okzitaniako Telebistak edo NAQTV 3 telebistak. Azken horrek hiru urteko hauspoa eman dio Baionako Euskal Herri lekuko albistegiari.

Harpidetza sistema bat jarriko dute martxan, Kanalduderen edukia telebistan ikusi ahal izateko internet bidez posible ez den guneetan. Gainera, kanaldude.tv webgunean jarriko dituzte eduki guztiak.

“Jendeak ilusioz hartu du filma”

JON GARAÑO, “HANDIA” FILMAREN ZUZENDARIA AITOR ARREGIREKIN BATERA

“Ilara handiak herrietan, sarrerek agortuta areto batzuetan, txaloak hainbat emanaldiren amaieran... eta gu txoratzen”, dio zuzendariak. “Jendeak filma ilusioz eta gogoz hartu du eta ahoz ahoko joera dagoela konturatu gara, hori ahalbidetzen ari dela egunez egun zifra onak mantentzea”. Iritzi aldetik, “denetik dago, eta normala da, baina orokorrean oso sentazio positiboa dugu, jendeak bidaltzen dizkigun mezuengatik, kalean ezagun eta ezezagunek esaten digutenagatik... Batek esan zigun ezin duela filma burutik kendu, eta gauza polita da hori. Jende dextentek, gainera, dagoeneko bigarren aldiz ikusi du edo ikusi nahi du pelikula, eta hiru aldiz ikusi duenik ere bada!”. **ARGIA.EUS (2017-10-25)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Erritmo kontua da:
ez dugu independentzia
nahi une honetan"**

**Kirmen Uribe, idazlea
(The New York Times)**

Hitz egin zure izenean



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Nik dakidala, modu bakarra dago independentzia nahi dugun ala ez zuzen jakiteko: herritarrei erreferendum bidez galdetzea. Baina ez garenez Doraemonen munduan bizi -ETBko errepikapenek batzuetan kontrakoa sinetsarazi nahi badigute ere-, aukera hori ezin da poltsiko magikotik atera eta Espainiako lege bihurtu. Inola ere ez, hori ez da posible testu hau irakurtzen ari zaren momentuan -oharra: berdin du noiz ari zaren testu hau irakurtzen-.

Hortaz, euskaldunok independentziaz inkestetan adierazten ditugun nahiak dira, gehienez, oinarritzko eskubide bat ukatuta edukitzeak eragiten duen animo-egoeraren isla. Gero animo-egoera horrekin politika egiten da eta atzo erabakitzeko eskubidearen bidean sakondu nahi zuen alderdia gaur buru-belarri sartuta dago errestituzio estatutarioan, horretarako gehiengoa paktatuz PSOErekin -zeinak babestu duen katalanek hautatutako Gobernuari 155 kalibreko ostikoa ematea-.

Mezua argi dago: sediziosoen parrandak ezin du kostalde honetara iritsi. Mezua oso argi dago: berdin du herritarrek zer dioten. Mezu horren alde mobilizatuta dago EAEko kultura ofizial guztia azken asteetan, "gu oraindik ez, gu *despacito*"; eta politikariek esaten dutenarekin duarrik baldin bazegoen, hemen daukazu Euskal Idazle KanonikoTM gauza bera errepikatzen.

Problema nagusia ez da edukia, nolanahi. Problema da Kirmen Uribek bere idazle lanetik dimititzea eta nazioarteko medio batean bere iritziak herritar guztienak balira bezala agertu nahi izatea. Literaturak ez dauka zerikusirik *low cost* soziologia honekin, errealtatearen poroetan bizi da, pertsonen eta gizartearen kontraesanetan; aurre-fabrikatutako adierazpenetatik urrun dagoen lurralde horretan. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



BITARTEAN EUSKAL HERRIAN...



SALBU, ESPAINIAK 8 ETA 21 URTE BITARTEKO KARTZELA
ZIGORRA ESKATZEN DUELA 48 LAGUNENTZAT
PRESOEN ALDE LAN EGITEAGATIK.
BAINA BESTELA, DENA ONDO...

ADUR

ANALISIA



Haizea alde behar du Hezkuntza sailburuak



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

EAEko hezkuntza publikoaren baldintzak hobetzeko eskatuz kalera atera da jendea pasa den asteburuan, Bilbo, Donostia eta Gasteizen. Erantzun zabala izan dute manifestazio deialdiek, baliabiderik gabe kalitatezko hezkuntzarik ez dagoela salatzeke. Hala, konfrontazio dinamika eusten diote sindikatuek, haien aldarrikapenak eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuaren proposamena elkarrengandik urruti baitaude oraindik. Negoziatzeko borondatea behintzat egon badago eta laster iritsiko diren bilera berrietarako, presio neurria izan nahi dute mobilizazioek (borroka asteak, sektorekako grebak eta greba orokorra daude aurreikusita).

Irakasle kopuruaren, ordezkapenen, behin-behinekotasun tasaren, ikasle ratioaren edota erretiroen gainean egin beharreko negoziaketek gako inportantea dute atzean: Jaurlaritzak hezkuntzan egiten duen inbertsioa handitzea. Horregatik, Cristina Uriartek kanpoan bakarrik ez, etxe barruan ere izango du beharbada negoziatzeko beharrik, aurrekontuetatik hezkuntzara zenbat bideratu adostu al-

dera –2018ko aurrekontu planean, ez da aurreikusten sindikatuek egin dituzten eskaerei heltzeko diru-partidarik-. Azken finean, hezkuntzan bake soziala nahi du Uriartek eta hala zaio komeni, ez alferrik egitasmo anbiziotsua du eskuartean. Duela urte batzuetatik lantzen ari den Heziberri planaren azken fasean murgilduta, eskola publikoa eta itunpekoa batuko dituen lege berrirako urratsak ematen ari da sailburua eta lege berria lorpen handia litzateke, urtetako ahaleginaren emaitza arrakastatsua... baldin eta hezkuntza komunitatearen gehiengoaren babesa balu. Bai, giroa bare eta haizea alde behar ditu sailburuak, bestela ere zaila eta arantzatsua izaten ari den lege egitasmoa hezkuntza eragileekin negoziatzeko.

Ikusiko dugu nola eragiten duten lege proiektu horrek eta presio herritarrak, Cristina Uriartek sindikatuei helaraziko dien hurrengo proposamenean, baina bai ELA, LAB eta STEILASEk, bai mobilizazio deiek orain arte jaso duten erantzunak garbi utzi dute borrokan segitzeko indartsu daudela.

EKONOMIAREN TALAIAN

Amiantoak 4.000 langile hil ditu jadanik




Juan Mari Arregi

Duela urte batzuk pentsatzen zen amiantoarena esajerazioa zela, produktu kantzerigeno horrek hurrengo hamarkadetan milaka lagun hilko zituela esaten zenean. Seguruenik ez dugu inoiz amiantoak hildakoen zifra zehatza jakingo, baina badakigu 1994tik 2008ra Espainiako Estatuan gutxienez 4.000 pertsonak galdu dutela bizia haren ondorioz. Enpresa eta sektore askotan erabili zen amianto: laneko gaixotasunak, produktuekin kontaktua izan eta handik urte askora azaleratzen dira. Azkeneko aldiz 80ko eta 90eko hamarkadetan erabili zen gurean, 2002an debekatu egin baitzen. Horregatik diogu hurrengo urteetan amianto hiltzailearen ondorioek hor segituko duela.

Minerala ezkutatuta egon da eta bere biktimen gehiengoak ez du laneko gaixotasunaren aitortzarik izan, ezta indemnizaziorik jaso ere. Kalteturiko hainbat senideren irmotasunak –CCOO eta beste sindikatu batzuek lagunduta– ekarri du auzia Gasteizko legebiltzarreraino iristea Bildu, EAJ eta PSEren eskutik, eta hortik Madrileraino. PP kontra izanda ere, Madril en onartu da amiantoak kalteturiko pertsonentzako konpentsazio funtsa eskatzen duen proposamena; enpresek, mutuek eta aurrekontuek elikatuko dute.

Beharrezkoa da funts horren alderdi sustatzaileak gelditu ez geratzea eta Espainiako Gobernuari eskatzea berehala martxan jar dezala funtsa. Askok baitira inolako konpentsaziorik gabe hiltzen diren biktimak eta haien senideak ere ahanzturan geratzen baitira. Gobernuak baimendu zuten 2002ra arte amiantoarekin lan egitea, bada orain haren biktima eta senideek ordain txiki bat izan behar-lukete behinik behin.



Leitza

Iruñea

Tutera

KONTSEILUA

Euskara ofiziala izan dadin Nafarroa osoan

NAFARROA. Euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin eta Nafarroa zonifikatu zuen 1986ko Vasconcearen Legea bertan behera uzteko eskatuz, kanpaina abiatu du Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak. Horretarako, egunotan sarean zabaltzen ari den bideoa kaleratu dute: *Nola bizi dute zonifikazioaren egoera Nafarrek?*

Pinudi eta eukaliptoen ordeztze, bestelako basogintza

Uriola.eus

@uriolaeus

Kolore Guztietako Basoak plataforma aurkeztu dute Bizkaian, naturatik gertuko basogintza egin dadila eskatzeko. Galizian eta Portugalen izandako suteen antzerakoak saihesteko eta zuhaitzak mantentzeko proposamenak azaldu dituzte.

Pinudi eta eukaliptoak

Bizkaiko baso eremuen %53 pinudiak edota eukaliptoak dira. Zuhaitz horietan oinarritutako basogintzaren ondorio larriez ohartarazi dute, azkar hazten diren arren kaltegarriak direlako suteetan, oso erraz hartzen baitute su.

Basoa babestu

Arazoari heltzeko eta basogintza politika onak egiteko eskatu diote Bizkaiko Foru Aldundiari. Gure baso autoktonoak babestu behar direla aldarrikatu dute, eta erabilpen libreko basoak kontrolatzea beharrezkoa dela.

Kudeaketa

Kolore Guztietako Basoak plataformak proposatu du "onura publikoko eta erabilpen librerako basoen %60 naturatik hurbi-leko baso kudeaketara bideratzeko eta beste %40a bertoko baso bezala kontserbatu dezatela".

PISU TURISTIKOAK



%56

EAEn eskaintzen diren pisu turistikoak %56 ilegala dela salatzen du EH Bilduk. Jaurlaritzak eginiko ikerketa baten arabera, 9.000 plaza inguru eskaintzen dira, horietatik 2.049 egoera ilegalean.

5

hilabeteko epean pisuak legeztatzen eskatu du EH Bilduk. Gipuzkoan daude eskaintza gehienak, batez ere Donostian.



ERASOA SOMALIAN

Eraso jihadistek ez dute etenik Somaliar: historiako atentaturik odoltsuenaren ostean (300 hildako baino gehiago urriaren 15ean) beste eraso bat izan da Muqdishonen, Somaliako hiriburuan: bi bomba-autok eztanda egin dute hiriarren erdigunean.



EDESA

CNA Group-eko filiala den Edesa Industrialek hartzekodunen lehiaketa aurkeztu du Donostiako merkataritza auzitegian. Dituen zorrak 100 milioi eurotik gorakoak dira. Fagor Elektratresnak hondoratu ondoren geratutako enpresen taldea da Edesa Industrial.



MOZAL LEGEA BERRIZ

Emakume batek bere semeari bizikleta lapurtu ziotenean behar bezalako tratua ez zuela jaso leporatu zien Gasteizko udaltzainei eta orain, Mozal Legea ezarri dio hari Udaltzaingoa. Udaltzainen jarrera salatzen du Herriarren Defendatzaileak.

Mezulari prekarioak kooperatiban antolatzen Deliverooren aurrean



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Bartzelonan ari dira bat osatzen, Parisen beste bat kasik prest daukate, Toulousen ba omen dago bat martxan... Hiri handietan jaki azkarrak jatetxeetatik etxebizitzetara banatzen dituzten bizikletazko mezulariak kooperatibetan antolatzen hasi dira, Deliveroo bezalako konpainiek horietako asko kaleratu ostean. Milioika jende prekariotzara kondenatu dituen *Gig Economy* delakoaren barruan duintasunez bizirauteko ahalegina da, zailtasun askoren artean ernea.

Bartzelonan Glovo eta Deliveroon aritutako mezulariak *rider* kooperatiba berria antolatzen ari dira. Joan den udako grebaren ostean erabaki dute ekonomia sozialeko enpresa bat sortzea etxetik etxetik jakiak banatzeko. Albisteak zabaldu du CNTtik hasita USO arteko sindikatu guztiek babesten duten *El Diari del Treball* hedabide katalanak.

Bizikletazko banatzaileen eskubiak defenditzen dituen *Ridersxderechos* mugimenduko kideak ari omen dira kooperatibagintzan. 2018 hasieran martxan beharko lukeen elkarteak osatzen ari dira bai oraindik bi konpainietan ari diren batzuk eta baita udako grebaren ostean Deliverooren *deskonektatutako* mezulari batzuk. Neoliberalen zapo-hizkera berrian, langile bat ez dute kaleratzen, *deskonektatu* baizik. Deliverooren enkarguak egiten zituzten txirrindulariak konpainiari internetez lotutako langile autonomoak zirenez, konexioa eten eta kito.

Kooperatibak azken finean lehenengo enpresaren lan bera egingo duenez –orain langileak izanik beren buruen nagusi– bezeroak, jatetxeak eta banatzaileak internet bidez lotuko dituen aplikazioa behar zuen eta dagoeneko prest omen daukate, funtsean orain arte ezaguna egin den negozio ereduari jarraituz: *App* hori eskuratzea aski da sistemari lotutako edozein jatetxeri enkargua pasa eta horren berri istantean jasoko duten mezularietako batek berehala jakia etxe atariraino ekartzeko.

Orain artean konpainia handi batek jasotzen zuen etekinarekin jokatu dute txirrindulariak bai lehiakorrak izateko eta bai beren lan baldintzak hobetzeko. Astean 20 ordugatik 400 euro kobratuz hasi nahiko lukete. Azken urteotan jakiak ez baina bestelako fardelekin garraioa bizikletaz egiten duen Trebol kooperatibarekin ere elkarlanean aritzeko asmoa dute.

Parisen ere antzeko proiektu bat eraiki nahian ari dira. Irailaren 20an, Frantzia osoan Emmanuel Macronen lan erreformaren aurka burutuko ziren mobilizazioen bezperan aurkeztu zuten publikoki Coopcycle proiektua, mahaian egon zirelarik bizikletazko mezulariak –tartean CLAP Parisko Mezulari Autonomoen Kolektiboaren sortzailea–, sindikalistak, ezkerreko politikariak eta prekariztaren aurka ari diren jendeak.

Bildutako 150 pertsonen aurrean eztabaidatu zuten langileei *uberizazioak* ekarri dizkien arrisku berriei. “Uberizazioa hedatzen baldin bada, langileen babes sistema osoa suntsiaraziko du” esanzen bertan, Fanny Dollberg kazetariak bildu duenez. Uber konpainiak izena eman dion eredu honek taxi, mezulari edo beste edozein zerbitzu burutzen dituztenak langile autonomotzat erabiltzen ditu, elkarren konkurrentzian jarrita haien babeserako sortutako edozein lege edo arau urratzeraino.

Sakabanaturik biziraun behar duten beharginon zintzurra estutzeko edozerk du balio. Deliverooren Parisko banatzaileei

leei abuztuan jakinarazi zien ez ziela gehiago pagatuko orduka, egindako enkargu bakoitzeko baizik. Soilik horrekin mandatariek hilero beren soldataren %30 galdu dezakete. Gainerakoan –Londresen CitySprint konpainia auzitara eramane zuela eta ARGIAk urtarrilean plazaratutako kronikan azaldu zuenez– ez gaixotasun atsedenaldirik, ez langabezia eskubiderik, ez erretretarik. Horra XIX. mendea XXI. ean.

Bilkuran Parisko Udalean zinegotzi ezkertiarra den Danielle Simonetek esan zuenez, “*uberizazioak* suizidio kolektibo baten konplize egiten gaitu, hau kapitalismoaren 2.0 aroa da”.

Irabazle jarrera behar duzu

Uberizazioak ez dirudi fite zimeltzeko lorea, munduan onddoen gisan ugaritzen dira lidergo ekintzaile neoliberaletan blai egindako enpresari-nahi gazteak eta horiek sortutako *start-up* distiratsuak.

Bizi laburra dute askok. Joan den udan erori da –jaki azkarren bizikletazko banaketaren alorrean jarraitzeagatik– Espainian asko txundituta zeuzkan Jinn konpainia, gazte espainiarrek Londresen kokatua. Europan zabalduetako ordezkariak guztiak itxi ditu uztailean, eta Londresen zeuzkan 120 langileetatik 20k bakarrik jarraitzen zuten udazkenean, Deliverooren erraldoiari konkurrentzia egiteko lehian hondoratuta.

El Confidencial-ek egina du jinnen ibilbidearen kronika. *Start-up* bat nola hasi,





'Ara' egunkariaren argazkian, Jinn eta Deliveroo konpainientzako banaketa lanak egiten dituzten mezulariak Bartzelonan burututako protestetako batean. Irailean beren lan baldintzak hobetzeko antolatutako grebaren ostean Deliveroo 30 txirindulari kaleratu ditu, 'deskonektatu,' enpresaren neohizkeran. Horietako batzuk orain kooperatiba berria abiarazten ari dira, Europako beste zenbait hiri handitan sortutako uberan.

hazi eta amiltzen den ulertzeko zenbait pista ematen ditu, baina baita konpainia horietako lider ekintzaileen artean dagoen ideologiaren irudia osatu ere. "Pertsona bati orduka pagatzen badiozu, ez duzu motibatzen lana gogor egin dezan. Enkargu batean ordubete emango du, denborak ez baitio axola (...) Lanerako gogoia duenak dirua irabazten du. Gizakia genetikoki programatuta dago ahalegi-nean egoskortzeko, baina orduka kobratzen baduzu eta euria hasi, ez zara mugitzen. (...) Irabazle jarrera baldin baduzu ez zoaz manifestazioetara". Alegia, Jinnek bigunegi jokatzearagatik egin zuela porrot, Londresen ordainketa orduko 9,5 libratik enkarguko 7tara jaitsi zuelako, bitartean Deliveroo mezulariei jaitsi zienean orduko 8 libratik enkarguko 3,5eraino.

Jinn izango zenaren lehen urratsak 2012an eman zituzten hiru gazte es-

painiarrek AEBetako Richmondeko unibertsitatean. Bidai partekatuetarako App batekin hasita, jo zuten *start-up* en azeleratzaile batengana, lehenbiziko finantziazio bila. Espezialista honek negozioaren ikuspegia aldarazi eta inbertsio berriak aurkitzen lagunduta, 2014rako 200.000 libra bilduak zeuzkaten. 2016ko martxoan iritsi ziren 20 milioiko inbertsioetara. Abuztuan dena joan zitzaien pikutara.

Jaki azkarren banaketako konpainien artean, hainbeste handitze distiratsu eta porrot deigarrien azpian zein negozio eredu dagoen ikertu eta azaltzen saiatu da Corporate Watch, konpainia kapitalisten eragin sozial eta ingurumenezkoak aztertzen dituen elkarteak. "*Deliveroo, where is the money?*" dossierrean erakutsi duenez, Deliveroo dirua galtzen ari da, eta asko: dena kontabili-

zaturik 129 milioi libra. Kontua da kapitalismoaren fase honetan Deliveroo 600 milioi inbertitu dutenek ez dutela bilatzen urteko etekina, bestelako aposturen batean irabaztea baino. Zer ote dago jokoan?

Batetik, ea Deliveroo izango ote den gero eta zabalagoa den jaki sukaldatu berrien banaketan munduko nagusietarik, familiek etxean sukaldea gero eta gutxiago usatuko omen duten mundu batean; sukaldari eta jatetxeak ere *uberizatzen* hasi dira. Bestetik, ea jakien banaketaren oinarrian dagoen plataforma teknologikoa zabaldu ahal izango den bestelako banaketetara. Banatzaileek bezeroen bizimodu eta ohiturez bildutako informazio multzoak ere balio handia izango du etorkizunean. *Casino Capitalism* honetan, dirua inbertitu ez baina jokatzeko beste motibo bat. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Didier Lestrade, hiesaren aurkako militantea «Gaitzitzen nauten norberekeria eta arrazismoa daude Frantziako gay komunitatean»

Isilpean atxikiriko historia argira ekartzeko balio ukan du *120 battements par minutes* (120 taupada minutuko) filmak Cannesko Urrezko Palmorria irabazi izanak. 80ko hamarkada bukaeratik aitzina hiesaren aurka eramandako borroka du hari nagusi. Jendaratearen eta agintarien ezaxolakeria irauli duen militante horietariko bat dugu Didier Lestrade, Parisko Act Up-en lehen lehendakaria izandakoa.



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

ARGAZKIAK: AURORE LUCAS

New Yorken sortzen da Act Up 1987an. Bi urte geroago sortu zenuten Pariskoa.

Hamabost bat ginen elkartearen sorreran. AEBetako etsenpluan oinarritzen ginen; hain ziren handiak non eta astero haien dokumentuak mundu mailako beste taldeei bidaltzen zizkieten. Sekulako informazio eta inspirazio iturri izan ziren. Lehen urtea oso gogorra izan zen: ez genuen esperientziarik, bakar-bakarrak moldatu behar genuen, dirurik ez genuen, egoitzarik ere ez, dena nire etxean egiten genuen. Hortik bi urtera, beti hor ginela ikustearekin, gurekiko ikuspegia aldatzen hasi zen.

Ezegaguna zen birusa ulertzea zenuten lehen eginkizuna.

Medikuntza komisioa izan zen sortu genuen lehena. Autoformatu ginen, pertsona batez ala biz aparte, inork ez zuelako jakintzarik arlo horretan. Konprenitua jendarteratzen genuen. Baina ez genuen beti ulertzen, oso konplexua zen eta artetan ulertuarena ere egiten genuen.

Konplexua eta gogorra.

Ez zen erraza izan baina hauturik ez genuen. Medikuen partetik heltzen ziztaigun informazioa osatzeko ardura genuen, garaian gutxi zekitelako eta kontra-txosten medikalak ezinbestekoak zirelako. Eri garenean gogorra da ikustea nola barnetik jaten gaituen eritasunak. Alde basati bat du medikuntzak eta alde horri aurre egiteko prest ginenak oso gutxi ginen.

Ekintza guneak izan ziren laborategiak.

Arlo honetan gurelako behar gorria. Ez genekien batere nola funtzionatzen zuen farmazeutika industriak, beraz, kasik itsuki jotzen genituen. Geneukan adibide bakarra zen AEBetako Act Up-ek Burroughs-Wellcome laborategiaren aurkako ekintza baten eraginez AZT sendagaiaren prezioa %10 jaitsi zela. Ikusten genuen ekintza soil bati esker garestiegia zen botikaren prezioa apaltzen ahal genuela. Haiekin genituen bilerak ere ongi prestatzen genituen, dena egiten genuen haien ezegonkor-

tzeko. Adeitsu izateko politikan zirenez, adeigabe izateko aukera genuen. Maritxua izatea, marizoro aldea exajertzzea... Ez ziren ohituak eta genituen arimak erabiltzen genituen.

Didier Lestrade

Burdeau, Aljeria, 1958

Hiesaren kontrako borrokaren aurpegi ezaguna da. 1986 urteaz geroz seropositibo, Act Up New York-en hasieran parte hartu eta bi lagunekin Parisko taldea osatu zuen bi urtera, 1989an. LGBT komunitatearen aldeko militante sutsua ere bada. Ogibidez kazetaria. *Têtu* aldizkaria sortu zuen 1995ean, *Minorité* aldizkariaren erredaktoreburu izan zen 2009tik 2014ra eta hainbat komunikabidetan kolaboratzen du. Hainbat liburu ditu argitaraturik.



IGNORANCE = FEAR



SILENCE = DEATH

▲ FIGHT AIDS ACT UP

Maritxuak eta punkiak. Halabeharrez, medikuntzaren unibertso hetsi eta hertsia horretan kausitu zineten.

Medikuntza-ikerikuntza gaixorik gabe ezin daitekeela burutu genuen printzipiotzat. Eriok genuen sendagailuaren efektuei buruz informatuko. Industria babesten zuten paretak hausten lortu genuen eta informazio batzuk ematen hasi ziren. Apur bat eman eta guk sistematikoki gehiago eskatzen genuen. Gal-detutakoa ez baziguten ematen, ekin-tza bat burutzen genuen. 1992 urtea arte iraun zuen, Bristol-Myers Squibb laborategia izan zen lehena elkarrekin lan egin behar zutela ulertu zuena. Entzuten eta ulertzen gintuen laborategi baten parean kausitzen ginen lehen aldikoz. "Bristol-Myers Squibbek egiten badu zergatik ez zuek?" galdera luzatu genien beste laborategiei.

Bazter utziak izatetik partaide izatera pasa zineten.

Hainbat elkarteren artean osatu taldea muntatu genuen eta laborategiekin biltzen hasi ginen. Hitz eta joera ezberdineko elkarrekin osatu koalizio baten parean zirela, bortxaz, botere pixka bat utzi behar zuten. 1994 urtetik aitzina, ordezkari bakar bat ala bi ukan beharrean, zazpinaka zetozen bileretara! Aktibista eta laborategien arteko harremanen aldaketa begi-bistakoa zen. AEBetako eta Frantziako aktibistek piztu suaren artean kokaturiko multinazionalak zirenez, han eta hemen estrategia bera ukan behar zuten.

Azkenean, harreman onak ukaiteraino.

Haien produktuen promozioa egiten genuela ulertu zutenean hobetu ziren harremanak. Haien suntsitzeko burutzen genituen ekintzak eta alta, ekintza orok haien burtsako akzioaren balioa emendatzen zuen. Ezin sinetsia zen. Baina guk, ikerikuntza eta komertzializazioaren arteko tarte hori laburtzea genuen helburu; horri esker bizi anitz salbatzea lortu genuen.

Laborategiak, Estatua eta Eliza. Ez zenituzten jomuga txikiak.

Hastapen batean botere erraldoi horiei atakatzaren ideiak berak iltzatzen gintuen, baina laster ohartu ginen atsegigarri ere izan zitekeela. Plazera ere bazen. Gure txikitasunaren parean hain ziren jomuga erraldoiak non eta nahi



Argazkia '120 battements par minute' filmeko fotograma da. Filma 90eko hamarkadan hiesaren aurka borrokatzeko sortutako Act Up mugimenduaz da. Frantziak Oscarretara aurkezteko aukeratu du.

genuena egiten ahal genuen. Boterea haien aldean zuten, baina guk beldurra genuen eta horrek ondorioztatu zituen aitzinamenduak.

Plazera ere kausitzen zenuten.

Hitz egiteaz gain, jotzeko ahala genuen, aldi berean hitz egin eta jo genezakeen. Seropositibo garenean, boteretik eta ahotsik gabe garenean, hau da, eritasunaren eta jendartearen parean gerizarik gabe garenean, gozagarri da konturatzeari indar bat daukagula eta jomuga ahultzeko erabili dezakegula.

Eritasunaz eta heriotzaz inguraturik, jendartearen ezaxola giroan, nola lortzen zenuten esperantza atxikitzen?

Act Up-en ekintzak ezagunak dira, baina ez barne-giroari zuzendu garrantzia. Beldurra nagusi zen gure baitan eta kohesioa zein laguntasuna ezinbestekoak genituen aitzina egiteko. Noski, banakotasuna bazegoen baina kolektiboa zen inportantea, *aukeraturiko familia*-ren ideia indartsua zen. Hala ere, gatazka handiak bagenituen. Nire testu gaiztoena elkarrekin utzi nuenean idatzituen; barnekoa atera behar nuen.

Seropositibo identitatea ere landu zenuen.

Homosexualitatearen eta hiesaren arteko lotura ez zuten aipatu nahi beste

elkarrekin, zioten ez zela lehen lerroan jarri behar. Gay Harrotasunean ere ez gintuzten begi onez ikusten. Guk ez genuen berdin pentsatzen. Are urrunago, seropositibo identitatea bazegoela genioen eta garatzeko hautua egin genuen. Garatu ezean jendeak konplexu gisa biziko zuelako. Balioa eman genion seropositibo izateari, identitate hori ohoratu genuen. Ados gara ez dagoela harro izaterik, baina hain zen diskriminazioaren eta beldurraren sinbolo non eta harrotasunez aldarrikatzea zen gelditzen zitzagun aukera bakarra.

Lesbianek Act Up-en ukan rola ere nabarmentzeko da.

Lesbianen engaiamendua sekulakoa izan zen hasieratik, Act Up barruan zementu izan dira lesbianak. San Franciscen, hastapeneko momentu gogorrenetan, 1981ean, lesbianak izan ziren odola ematen lehenak. Geroago, 1994tik aitzina etorri ziren heterosexuak. Orduan hartu zuen abiada Act Up-ek, indar koalizio izateaz gain genero koalizio ere bihurtu ginelako. Komunitate bakoitzak bere etika eta kultura ekartzen zion taldeari. Heterosexualez trufatzen ginen, zintzoki bazen ere, nonbait iragatze erritua pasa behar zuten. Heterosexual anitzek zioten Act Up-en baitan gayekiko subordinazio egoeran zirela.



Eraman duzuen borroka isilean atxikia izan da.

Militante horien historia kontatzea izan da Robin Campillo eta Philippe Mangeot *120 battements par minute* filmaren gidolarien helburuetariko bat. Historiaren orri hau nahitara ahanztirik edota desitxuraturik zela ikusteak min egiten zien. Urteak pasa dira eta Act Up-ez hitz egin eta "oraino horretaz mintzo zira?!" zioen jendeak, oroitzapen hori irudikatzegatik ia ahalke sentimendua sortu arte gure baitan. Arras ongi ulertzen dut garaiak aldatu direla eta beste gai batzuk daudela plazaren erdian, ni ere ez naiz beti Act Up-ez mintzo. Baina penagarria da ikustea nola ahanzturarekin zigortu nahi izan duten borroka hori. Noski, filmak hori zuzentzen du.

Militante batzuek ere ahanztu nahi izan zuten.

Tratamenduak agertu zirenean mugimendua lasaitu zen; jendeak aurrera egin nahi zuen, bizi pribatuari lotu nahi zuen. Urte luzetan bizi guztia Act Up-i zuzendu zioten. Alde zinez dramatikoak zuten gure ekintza zein diskurtsoek, une oro berri txarren plazaratzen ari ginen. Gure aurka itzuli zen, giro beltz horrek nekatu gintuen. Eskerrak barne giro goxoa genuela giro hori konpentsatzeko.

Gaur egungo Frantziako gay komunitateaz kritiko zara.

Gayak pribilegiatu bilakatu dira eta besteak ez dira gehiago arduratzen. Adibiderik onena homosexualentzako ezkontza dugu. Lesbianeik hitz emandako medi-

kuntzaz lagunduriko haur sortzea bazterrerara utziz irabazi genuen eskubide hori. Beste behin ere lesbianak sakrifikatu ditugu aitzina pauso bat lortzeko. Bestalde, zer gertatuko zaigu zahartzaroan seropositibo zaharroi? Biziki konplikatuak diren osagarri arazoak ditugu. Une honetan adibidez, hortzak erortzen zaizkit.

Izaera politikorik gabekoa dela deitortzen duzu.

LGBT komunitate bat badela badiogu, komunitate baten gisara jokatu behar dugu. Komunitate espiritua, ordea, ez doa azkar Frantzian, pribilegiatu gisa jokatzeko dutelako gayek. Hiesari doakionez herri aberatsek lortutakoa herri pobreak lortu behar duten gisara, gayek lortutakoa eskuratu behar dute lesbiana zein transexualek ere. Ingalaterran edota Alemanian etorkinez arduratzen diren LGBT taldeak daude. Zergatik ez Frantzian? Gaitzitzen nauten norberekeria eta arrazismoa daude Frantziako gay komunitatean. Gaur egungo gayek larrua jo nahi dute, besterik ez. Ligatzeko aplikazioetan daude eta oso ongi dago, ni ere banago; baina berekoikerian gaude gehiegi, epidemia aitzineko berekoikeria berean. Pertsona ezagun anitzek *coming out*-a ez egitea berekoikeria honen beste alde bat da. Haien zatitza eta komunitatearentzat on den zerbait ezin badute egin, ez diet konfiantzarik.

Kritika horiek heterosexualentzat ere bali dute.

Egia da. Baina errango nuke gayak baino arras fiteago bestelakotu direla heterosexualak. Tolerantzia handiagoa dago eta uste dut hiesaren aurkako borrokaren emaitza ere badela, itxura edota klaseari so egiteari utzi eta elkar-lagun-

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

50€



tzari lotu zirelako. Gaur egun ia lehen-gokoaren alderantzizkoa naizela errango nuke. Lehen soilik gayekin sentitzen nintzen ongi, orain alderantzizkoa da, heterosexualekin hobeto sentitzen naiz. Beldurgarria da hori erratea! [irriz].

Homonazionalismoa gora doa.

Orokorki etorkinei begira dagoen joeraren aurpegi bat da. Batez ere besteen erlijioaren errefusaren isla da. Gai horrek mintzen nau zeren kolono seme naiz, arabiar herri batean sortu nintzen. "Haietaz interesatuko gara emakumee-kiko eta gayekiko tolerante izango direnean" erratea joera oso inperialista da. Lehen erabat antiklerikala, erlijioen aurkakoa nintzen, baina aldatu behar nuela ulertu nuen 2001eko irailak 11 biharamunean. Erlijioa norberaren askatasunaren parte da. Ezin dugu pertsona bere erlijioa mugatu, bere sexualitatera mugatu ezin dugun bezala. Garrantzitsua da, baina ez da guztia.

Gutxiengoek ez dute erraza Frantzian.

Gutxiengo etnikoek ia apartheid soziala pairatzen dute. Gure iragan koloniala

sekula konpondu ez izana da arrazoi nagusietariko bat. Frantziak barkamena luzatu behar lioke Aljeriari eta ukandako beste koloniei. Testuinguru horrek ezberdinari buruzko herra elikatzen du. Aniztasunari beldur dio gay zuriak. Paradoxikoki, 70eko hamarkadan harreman gehiago zegoen gay eta musulmanen artean. Geroztik eta gehiago ari dira

» "Seropositibook medikuntza-ikerketak gaixorik gabe ezin zitekeela burutu genuen printzipiotzat"

» "Gure borrokaren abangoardia dira transexualak, eta ez 30 urtekoak 15ekoak baizik!"

eskuina bozkatzeko, baita Fronte Nazionala bozkatzeko ere. FN-k homosexualak xarmatzen lortzen duen lehen aldia da.

Agian LGBT multzoa "komunitate" izendatzeak ez du gehiago zentzurik.

Uste dut komunitate ideia mantendu behar dugula. Tolerantzia egon daiteke. Gure borrokaren abangoardia dira transexualak. Ez dira 30 urteko transexualak mintzo, 15 urtekoak baizik, hots, gazteria berria! Uste dut identitatearen kontzeptua erabat aldatuko dela eta nahi ala ez mugimendua elikatuko duela. Gutxiengoaren barnean dagoen gutxiengoak du agenda finkatzen.

Horretarako prest al da gay komunitatea?

Ez, baina onartu beharko du. Hiesaren aurkako borrokarekin gauza bera gertatu zen, hasieran ez zuten nahi, baina azkenean, kritikatu gintuztenak gurekin genituen. Uste dut mugimendua militantea betidanik *freaks*-ek zuzendu dutela. Act Up-en bagenituen eta haiek zuten taldea bideratzen. Transexualak komunitateko *freaks*-ak dira eta haien arabera ariko gara. ■

Kalean da azaroko

aizu!

- Emakumeak futbolean oztopoak gainditzen
- Ane Irazabal arin-arin
- Euskara ikasten laguntzeko dekalogoak
- Zirku euskalduna
- Euskara aspaldikoa da Nafarroan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Sezesioen geopolitika

Estatu independente berri bat jaiozko bi baldintza behar dira: indarkeriaren monopolioa aldarrikaturiko lurraldea eta nazioarteko aitortza. Lehenengo baldintza hiru arlotan gauzatzen da, bortxa legitimoa inposatzea, zergak kobratzea eta justizia egikaritzea. Bigarren baldintzak, aldiz, herrialdez herrialde bilatzen du estatu berriaren aitortza, arrakasta neurtzeko adierazlerik egokiena nazioarteko erakunde desberdinetan ordezkaritza lortzea da, Nazio Batuen Erakundean (NBE) kide oso bezala sartzea litzateke maila gorena.

Herrialde batzuek bi baldintzak partzialki lortzen dituzte edo bakarra erdiesten dute osotasunean, bestean aurrera pausoren bat emanez edo ez. Horrela, estatu batzuek nazioarteko aitortza dute, baita gradu inportantean eduki ere. Adibidez, Palestinako Estatuak 130 herrialdeen aitortpena du eta NBEko asanbladako kide behatzaileria da. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak hamarnaka nazioarteko aitortza ditu, baina Palestina bezala, *de facto* ez da independentea.

De facto independenteak diren herrialdeek nazioarteko potentzia baten babesa behar dute isolamendu ekonomikoari aurre egiteko eta indarkeriaren monopolioa segurtatzeko. Ipar Zipreko Turkiar Errepublika ez litzateke bideragarria izango Turkiaren babesik gabe, ez litzatekeen bezala Karabakh Garaiko Errepublika (Nagorno-Karabakh) Armenia gabe, Kosovo Mendebalde gabe edo Transnistria, Abkhazia, Hego Osetia eta Donbass Errusia gabe. Katalunia baina, ezin da herrialde guzti hauekin parekatu, besteak beste, mendebaldeko inperioaren bihotzean dago eta aberatsa da, horregatik, ez dago prest benetako aldebakarreko sezesio bat aurrera emateko aita/ama bitxirik gabe, indarkeriaren monopoliorik gabe eta



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Kataluniako aldebakarreko sezesioa etxean eta atzerrian aurrekari arriskutsu bat bezala ikusten du mendebaldeak. Adibidez, nola defendatu ahal izango lukete EBk eta NATOk Kataluniako aldebakarreko sezesioa eta Krimeakoa kondenatu?

nazioarteko aitortza gabe. Kataluniak martxan jarri duena estrategia berritzaile bat da: jatorrizko estatua presionatzea era baketsu eta demokratikoan eseri dadin negoziatzera autodeterminazio eskubidearen aitortza eta honen egikaritzea.

Geopolitika da Kataluniako ahulgunetako bat. SESB eta Jugoslavia zatitzea proiektuak eta desioak asko ziren aspalditik, ez da azkarra izan behar

praxia eta arlo diplomatikoaren arteko hizkera bereizteko. Esloveniako erreferenduma gertatu aurretik mendebalde-tik arma saltzen zitzaizkien Eslovenia eta Kroaziari eta AEBetako kongresuak Jugoslaviari finantzazioa ukatu eta errepublikei soilik finantzatzeko legea onartu zuen. Bestalde, mendebaldeak ez zuen inoiz onartu Baltikoko herrialdeen okupazio sobietarra, eta esate baterako, 1983an, Europako Parlamentuak mozio bat onartu zuen okupazioa salatuz eta Baltikoko herrialdeen independentzia berrezartzearen alde.

Kataluniako aldebakarreko sezesioa etxean eta atzerrian aurrekari arriskutsu bat bezala ikusten du mendebaldeak. Adibidez, nola defendatu ahal izango lukete EBk eta NATOk Kataluniako aldebakarreko sezesioa eta Krimeakoa kondenatu? Krimean 1990eko hamarkadan bi erreferendum antolatu ziren soberania aldarrikatzeko, trukean Kievek autonomia bahitu, argi indarra moztu eta presidentea kargugabetu zuen. 2014an agertokia errepikatu eta hirugarren erreferendum batean huteskunde eroldaren %83,1ak babestu zuen sezesioa. Tartean estatu kolpe bat egon zen Kieven eta Krimeak ejertzito eta estatu indartsu baten babesa izan du, Errusiarena.

Kataluniak bide bakarra du Espainiaren gaineko presioa handitzeko. Kostu baxuko independentziaren propaganda bukatu da. Espainia negoziatzera derrigortzeko mendebaldeko irudiak sufritu behar du gatazka honekin. Horren adierazle bada Putinek eginitako adierazpenak moral bikoitza mahai gaineratuz afera honetan. Presioak gora egiten jarraituko du aldebakarreko independentzia aldarrikapena hilabeteak iraungo duen desobedientzia zibileko ariketa erraldoi batekin uztartzen bada, horrek kostu ekonomiko eta pertsonalak sortuko ditu. ■

Kataluniaren argitan

Jakin gabe ere zer gertatuko den (urriaren 22an ari naiz artikulua hau idazten), hainbat kontu argi daude Kataluniaren aferaren inguruan. Besteak beste, hauek:

Lehen: Kataluniak, independentzia lortu ala ez, irabazita dauka independentea izateko eskubidea. Kataluniako erakunde eta herritarrek aski eta soberra frogatu dute gauza direla herri gisa antolatzeko –aspaldidanik independenteak diren herrialde anitz baino neurri handiagoan–.

Badakite borrokatzen indarkeriari heldu gabe eta, ahal heinean, lasaiki, eta trebe ari dira malgu eta tinko jokatzeko aldi berean, desadostasunak tresna politiko bihurtzen, espontaneotasuna eta plangintza uztartzen unean-uneke beharrei erantzuteko, uko egin gabe, daukaten bide malkartsuan, ez umoreari, ez aniztasunari, ez beti harrotasun izan duten kultur atxikimenduari.

Bigarrena: Espainia deitzen den Estatuak jarduteko modu nagusi bat baino ez omen du ezagutzen, familia batean kideak berari halabeharrez atxikita eduki nahi dituenaren antzera, zigorraren keinadaz gain ezer eskaini gabe, beti atzerantz tiraka, uzkur eta zurrin ezein negoziazioaren aurrean. Historiari begiratuta, deigarria da ez



Inma Errea

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

@inmaerrea

Ez gara ibili fin, herri gisa, katalanek aspaldi hasitako bidez garaiz ohartzeko. Gutako anitz berandu samar jabetu dira hango errealitateaz. Baina iritsi da garaia elkartasun-ekimen eraginkorragoei heltzeko

ohartzea bide hori antzua dela, goizago edo beranduago huts egingen diola, eta sufrimendua eta ezinegona besterik ez duela eragiten.

Hirugarrena: agerian gelditu da, berri ere, Europa deitzen dugun herrialde-multzoaren benetako izaera. Ez da

lehen aldia, azken urteotan adibide ugari ikusi baititugu: Grezia, errefuxiatuen krisia eta, orain, Katalunia. Lekutan dago egun nozitzen ari garen Europa-ko antolamendu lukur eta interesatua –gauzak dauden-daudenean utzi baino nahi ez duena, gutxi batzuen mesedetan– saldu ziguten amets europar goxo eta utopiko hartatik –non demokraziaren ontasun eta giza eskubideek orok bat egin behar baitzuten–.

Laugarrena: Eskergarria da katalanen jardunak beste gauza asko agerian utzi izana, eta horien artean, Euskal Herrian jada ezagun genituen batzuk, hala nola giza eskubideen eta demokraziaren inguruan Espainian (eta European...) dauden gabezia handiak eta uste aizun askoak.

Eta bosgarrena: ez gara ibili fin, herri gisa, katalanek aspaldi hasitako bidez garaiz ohartzeko. Gutako anitz berandu samar jabetu dira hango errealitateaz –zoritarrez, anitzek Madrilgo ikuspegia nagusi duten iturrietatik baino ez dute edaten–. Baina iritsi da garaia elkartasun-ekimen eraginkorragoei heltzeko. Beren burua abertzale edota aurrerakoitzat duten euskal alderdiek ez lukete utzi beharko Katalunia bakartuta inongo lege-atakatan, eta Kataluniaren alde jardun beharko lukete. Katalanen antzera, era baketsuan baina tinko. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Fast politics eta astigar errea



Rosa Maria Martin
Sabaris
EHU-KO IRAKASLEA

Nahi nuke udazkeneko astigarrek dituen kolore zoragarriari buruz idatzi, hil zaigun lagunak utzi duen hutsuneaz, eskolara lehen aldiz joan den umearen begirada urtuaz. Horretaz nahi nuke idatzi. Baina ezin dut.

Ezin dut albo batera begiratu edo gertatzen ari denaren aurrean isilik geratu.

Egunkarietako azalek eta albistegietako tituluak agindu didate premiazkoa dela beste gai bati buruz idaztea. Manatu diete politikariari nola, noiz, zenbat eta zenbatero hitz egin behar duten. Aldiro botoa emateko eskubidea duen ikus-entzule edo irakurle huts bilakatu nahi naute. Telebistako zuzeneko emanaldiek kutsatu egin dute politika. Bideo-politikak irentsi egin du plazako hitzaldi luzea.

Fast politics. Epe laburrekoa. Mehatxatutako epeak. Uneko erabakiak. Bat-bateko erreakzioak. Zuzeneko okerrak. Ondo dakite komunikabideek gure arreta erakartzeko ez dagoela betiko narrazioak bezalakorik: hasiera-klimaxa-amaiera, pertsonaia onak eta txarrak, ekintza, suspensea, tentsioa.

Errusiar erruleta. Arma bi. Batean, aldeba-karreko independentzia aldarrikapena. Bestean, 155 zenbakia daraman txeke zuria. Bi gizon elkarri begira. Eskua lehenago nor mugituko zain. Ikuskizuna luzatze aldera, dena epeka. Dena hordagoka.

Fast thinking. Pentsamendu azkarra. Arina. Berehalako iritzia, interpretazioa, balorazioa.

Gaixoa hiltzeaz oraindik eta autopsia dagoeneko eginda. Egia-ostea baino, egia-aurrea. Bitartean, aditurik adituenak hitz eta pitz etengabeen telebistan, irratian... Analisi politiko zorrotzak, goi-mailako azterketak telesaio edo irratsaio baten neurrian. Nahierara.

Eta komunikabideen logikak maite nuen politika gaiztotu egin duela idatzi behar nuenean, plast! Gobernu bateko ministroen kontseiluko politikariak maite duen komunikazioa askatzea erabaki dute: ikus-entzunezko hedabide publikoetan "informazio egiazkoa, objektiboa eta orekatua" bermatuko dute, baita "pluraltasun politiko, soziala eta kulturala" ere. Alajaina, bazen garaia! Publikoetan zein pribatueta...

Ziztu bizian agertu dira han eta hemen horrelako asmoaren aurkako salaketak: kazetariak, erreportariak, albistegietako kontseiluek... Orduantxe esnatu naiz. Nola liteke kazetariak egiazko informazio objektibo eta orekatuaren aurka agertzea? Hitz eder horien atzean mehatxu iluna ulertu dute biek ala biek, politikariak eta komunikatzaileak, ondo ulertu ere. Mintzoaren azpiko esangura, hitzen azpisugea xuxurlari. Zertarako idatzi, zertarako irakurri, zertarako hitz egin, berbaren balioa betirako galdutzat ematen badugu? Hasierako asmora itzuli naiz amaieran. Astigarrari so egin diot berriro. Ez du jada kolorerik. Suteak kiskalita, edo haize beltzak izoztuta, ez dakit. Hori udazken honetako haize zakarrak utzi duena. ■

Fakeak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Argazki bat ikusi dut Twitterren: Bilboko udaletxe aurrea jendez lepo, baita zubia ere. Idatzita du euskaldunon protesta dela 155. artikulua aplikatzearen kontra. Baina erretatuko jende oldean kolore bat nagusitzen da, gorria. Bitxia. Era berean, egun horretan eguraldi trista egin zuen. Fotoan, ostera, eguzkitsu dago. *Fakea* da, faltsutze bat, alegia. Argitu digute Athletice ospakizun batekoa dela.

Halako asko zabaltzen dira sare sozialetan, borondate txarrez ia beti. Manipulazio galanta, erraz irensten duguna, astirik hartzen ez dugulako jatorria non duen ziurtatzen. Ia beti, *datsegit* batek, edota *bertxioek* askoz gehiago arduratzen

gaituztelako. Azkar klikatu, ahalik eta gehien zabal dadin.

Sare sozialek informazioa kontsumitzeko modua ere bultzatzen dute. Dena bizkor, dena bat-batean, arin eta atsedean barik. Ez dago astirik ezer berresteko, informazio kopurua, osotara, irentsi ezina delako.

Engainatu egiten gaituzte. Edo, hobe esanda, engaina errazak garenez, esku-eskura jartzen diegu aukera faltsutzaile hauei. Baina benetako galdera da zergatik argitaratzen dituzten iruzurgileek *fakeak*: loriazko 15 minutuak izateko. Nartzisismoak besterik ezin du azaldu erridikulu hau. ■

Iraganeko leloak orainean

Udazkeneko sua, AfD alderdia bostetik batek bozkatu duen herri batean. Batasunarekin zerbait galdu zuen Alemaniako ekialdeak. *Losing my religion* entzuten da. Hiru lagun kantua leloa baino gehiago abesten hasi gara. Seme-alabak begira jarri zaizkigu jakinguraz, hunkituta, deseroso. Auzo-lotsa ere ote zegoen beren begiraden koktelean? Seguruenez. Seme-alaben adina ez da nahikoa kantua nora eramane gaituen jakiteko: 12-15 urte genitueneko nerabezarora eta orduko sentipenetara. Nora eza, barne eta kanpoko gerrak, bakardade eta ametsak, erantzunik gabeko maitasunak eta entzungor egiten duen ingurua. Musika-txinparta batek piztu digu iraganeko su baten oroitzapena, bakoitzari berea. Batzuei Led Zeppelin edo Iggy Pop entzuten gertatuko zaie, besteei Hertzainak edo Neguren arrakastekin.

No pasarán entzun omen zen Bartzelonan, poliziari zuzenduta. 80 urteko tartea bere burua defendatzen zuen Errepublikaren eta deklaratu izan nahi duenaren artean. Frankismoa amaitzeko ote dagoen. Zilegi al den Gerra Zibila gogora ekartzea, zilegi al den iraganaz halako erabilera egitea. Batzuek ezetz diote, irmoki. Nazismoa ere amaitu zen, eta Alemanian naziekin konparaketak egiten diren oro, ez egiteko eskatzen da, arren, ez konparatzeko.

Batzuetan musika bat entzuten dugu, eta buruak loturak egiten ditu. Batzuetan iraganeko gatazka batek, borroka batek, txinparta batek bezala salto egiten digu begien aurrera. Eta akaso, etorkizun posible baten irudia argitzen du. Antza, Europak irudi berri bat behar du.

Atzera eta aurrera, epe luzera begira jartzen gaitu Kataluniak. Espainian sortu duen krisia ezin da banatu Europar Batasunak bizi duen krisi egoeratik. Herrien Europa desio dutenek esperan-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

tzaz begiratzen diote Kataluniari, estatu nazionalen European agintzen dutenek, aldiz, kezka.

Ez da mugimendu fokalizatu batek European larritasuna sortzen duen lehen aldia. Denbora-jauzi handia egingo dut, 1871. urtera, alegia: Europak, beste arrazoi batzuegatik, beldurra izan zion Parisko Komunari. *Vive la Commune!* aldarrikatu zutenek ere, *commune* hitza iraganeko musiketarik erreskaturatu zuten, *citoyenne* hitzarekin batera, Frantziako iraultzaaren garaia aipamen zuzena eginez. Autonomia lokalaren eskakizun horretan, denek ez zuten gauza bera ulertzen: deszentralizazioa, autogestioa, federalismoa... Eskala internazionalen proiektatzen zuten beren iraultza, eta Europako prentsak satanizatu egin zituen. Alemaniaren laguntzaz, egun gutxitan zapaldu ahal izan zuen Frantziak Parisko Komuna.

Nazioarteko prentsan ez dute Katalunia guztiz txarto tratatu. Alemaniakoan ordea, oro har, testuinguru gutxiegi eskainiz eman dute hango gertaeren berri. *No pasarán* leloaren berrerrabilera *fartsa* gisa kalifikatzen zuen kazetariren batek, eta katalanek Gerra Zibilaren erabilera oldarkorra egiten dutela salatzen zuen. Baina nortzuk dira *farsanteak*? Marxen esaldi ezagunenetakoa izango dena datorrit gogora. Eta dio, Hegelen tesi bat osatuz, historia bi aldiz errepikatzen dela: lehenengo tragedia gisa, eta bigarren, *fartsa* gisa. Tragediaren sortzaileak izan zirenak bigarren bueltan *farsanteak* badira, hau da, ez diren zerbaiten itxura ematen badute, Espainiaren kasuan, demokratizantzia aurkeztzen dute beren burua. Belaunaldiz belaunaldi, sarritan familia barruan, motibo jakin batzuk iragaten dira. Europa han eta hemen sutan daukagun garai honetan, hainbat lekutako iragan ezberdinetatik agertzen ari zaizkigu txinpartak. ■



Errepublika eta autonomismoaren artean jarraitzen du prozesuak

Nola egiten da herrialde baten independentzia Mendebaldeko estatu batean metropolia aurka izanda eta biolentziarik erabili gabe? Ez dakigu, ez da inoiz halakorik bizi izan Mendebaldeko Europan. Katalunian ikusten ari gara prozesu hori, bere gora-behera guztiekin.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIA: JORDI BORRÀS

Katalunian ikusten ari gara independentismoaren urrats sendo bakoitzaren bueltan noraeza eta sendotasuna azaleratzen direla aldi berean, egin gabeko bide gaitz batean ezinbestekoa den moduan. Egun erabakigarriak dira jakiteko prozesuak nola jarraituko duen aurrera, Errepublika nola sendotuko den, edo nola ahuldu.

Ezin da ahaztu, hala ere, duela baka-
rrik bi hilabete ia pentsaezinak ziren bi urrats erraldoi eman direla Katalunian: bata, Madrilek debekatutako erreferendum bat egitea; eta bestea, urriaren 27an Kataluniako Errepublika aldarrikatzea. Nahi diren balorazio guztiak egin daitezke bi gertakari hauen inguruan, baina Espainiako Estatuan inork gutxik sinetsi ezakeen udako oportunitate bueltan udazkeneko haizeak halakorik utziko zuenik.

Urriaren 1ean umiliatua sentitu zen Espainia gozatzen ari da egunotan 155. artikuluko makil-dantzari ekin ondoren, independentismoa aldarrikapen-
tarako eta kaleak betetzeko gai ikusten duelako baina ez Estatu bat edukiz betetzen jarraitzeko gai. Harrokeria eta plazerez beteriko burla keinu sakonez, pistolarekin burura apuntatuz, lerro gorria pasatzeko ausardiarik ez duela esaten dio espainiar agintariak armagabetutako katalan agintariari. Ostiraleko herri pozaren ondoren, asteburuko lasaitasunak irudi hori utzi zuen barrikadaren alde bateko zein besteko begi-ninietan. Edo, hainbat irudiren artean, hori ere bai.

Gezurrezko lasaitasun horrek, gainera, elikatu egin du unionismoak eta haren aliatuek zabaldu nahi duten 155. aren bertsio biguinaren irudia. Herri-tarrek hautatutako legebiltzar bat eta gobernu bat indarrez ezabatzea, ordea, ezin da inoiz biguin izan. Ikuspegi demokratiko batetik, gerta daitekeen erasorik handiena da eta erabat demokraziaren aurkakoa. Espainiarren gehiengoaren pozarren da egoerarekin. Eta euskal herritarrek? Zer uste dute gure agintariek? Zer erakundeek? Katalunian edozer gerta ere, hemen ez ote du eraginik? Normaltasunez goberna daiteke emakumezkoa bortxatu edo bikotea jipoitu duen gizonezkoarekin batera? Normaltasunez onartu norbera ere 155. aren mehatxupean dagoela?

Noraeza

Kontua da Kataluniako Errepublika aldarrikatu ondoren independentismoa berriz dagoela noraezean, edo hori islatzen dela haren barruan. Kontua da mugimendu independentistak pentsatzen badu Kataluniako Errepublika sendotu daitekeela Espainiako Estatuarekin konfrontazio maila handi bat izan gabe, bereak egin duela. Baina, besterik gabe, hori pentsatzea inozoegia litzateke eta mugimendu independentistak orain arte egindako bidea gutxieste.

Egun eta aste gutxitan ikusiko dugu mugimendu independentistak epe motzean Errepublikaren desafiorekin jarraitzen duen edo arnas luzeagoko bide bati ekiten dion. Eta horrekin batera, in-

dependentismoak jarraitzen duen bere harribitxia den batasunari eusten, edo azukre koskorra moduan desegiten den Madrilek emandako estatu kolpearen baitan. Kaleak dio eutsi nahi diola desafiari, desobedientziarekin jarraitzeko prest dagoela, Konstituzio berria idazteko irrikaz. Eta instituzio eta alderdietako erakundeek? Hori da berehala ikusiko duguna.

21eko hauteskundeak

Egun oso gaitzak datozkio independentismoari. Lehen harresia izango da gobernu kolpistak jarritako hauteskundeak nola erantzun erabakitzea. Kataluniako eskuin abertzalearen zati batek erabakita du jada bertan izatea, izan PdCAT izenarekin edo honen zatiketarik sortutako bestelako siglekin; eta ez zaio faltako Santi Vilarik zerrendaburu jarduteko. Baina, zenbat dira?

Egia esan –hemen egoeraren konplexutasunaren beste adierazle bat– independentismoan oraindik inork ez du baztertu aurkeztearena. Areago, oraindik gerta liteke independentismoak aukera hau baliatzea eta zerrenda bateratua aurkeztea, alderdietan baino erakunde zibiletan oinarrituta. Egunotan ikusiko da aukera hau zertan geratzen den.

Iragan irailaren 26an Puigdemontek hauteskundeak deitu izan balitu, seguru-
enik egungo prozesuaren amaiera zatekeen. Hemen jarraitzen du, aldiz, Errepublika eta guzti gainera. Baina, badira osagai kezkarri asko honen aldarrikapenaren bueltan, egunotan argitu beharko direnak, jakiteko fase honek jarraitzen duen ala beste batera iragaten den. Hiru karte-
leko bidegurutza iritsi da Errepublika jaio berria lau hankatan. “Autonomia Estatutua”, dio lehen norabideak. Prozesismoaren jarraipena litzateke eta, errepresio maila bat onartuta, autonomismotik borrokan jarraitzea ekarriko luke, egungo bidearen porrota onartuta. Bigarren kartela: “Autonomia Estatututik Kataluniako Errepublika”. Trantsizio denbora batean, posible ote Errepublika autonomiatik eta kaletik aldi berean sendotzen jarraitzea? Eta hirugarren kartelak zera dio: “Errepresioa – askatasuna”. Eta askatasuna da Madrilekin negoziatu ahal izatea erreferendum adostu bat. Zenbat errepresio behar da horretarako? Eta zein erresistentzia maila?

» Harrokeria eta plazerez beteriko burla keinu sakonez, pistolarekin burura apuntatuz, lerro gorria pasatzeko ausardiarik ez duela esaten dio espainiar agintariak armagabetutako katalan agintariari

» Areago, oraindik gerta liteke independentismoak 21eko hauteskundeetako aukera hau baliatzea eta zerrenda bateratua aurkeztea, alderdietan baino erakunde zibiletan oinarrituta; egunotan ikusiko da aukera hau zertan geratzen den

Nola egiten da Errepublika, eta nolakoa?

Urriaren 27an Errepublika aldarrikapena bizi izan zuen kaleak: malkoak, maitasuna eta mamboa izan ziren Parlament aurrean bildutakoen lehen erreakzioak eta bakoitzak bere erara ospatu zuen gau hartan “bihar datorrena datorrela”. Larunbata siestaren egun nazionala izan zen, Puigdemontek ere bere agerraldian pisu nagusia lasaitasunari emanik. Urriaren 29a iritsi zen, igandea, eta galdera zorrotzak entzun genituen lanean ekinen ari direnen artean, Terrassan eta Sabadellen: Nola jartzen da plantan Errepublika egiturarik gabe? Eta nolako konstituzioa da Kataluniako Errepublikak izango duena?



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Estitxu Eizaguirre Kerejeta

@eeizagirre



Urriaren 29an Terrassan:

Vallcarca, Sabadell eta Terrassako CDRetako kideak mahai-inguruan.

Umerez entzun ahal diozu batari eta besteari “Erepublika hau da beraz? Ez da ezer berezia antzematen...”. Inork ez luke esango herri bat egun batetik bestera aldatzen denik, baina Parlamenta eta Goberna berezko hautetsien esku baleude, beste festa eta giro bat arnas-tuko ziren.

Igande goizean Terrassara jo dugu, bertako CDRak (Katalanezko hitzetan Errepublikaren Defentsarako Komiteak) antolatutako jardunaldira. Vallcarca, Sabadell eta Terrassako CDRetako ordezkariak galdera hau luzatu die moderatzaileak: “Bazegoen halako presa bat errepublika aldarrikatzeko. Eta orain hori eginik, nola lan egin behar dugu CDRetan?”. Vallcarcakoak zorrotz erantzun du: “Guk errepublika aldarrikatzeko baino, presa genuen manipulatuak ez sentitzeko. Errepublika aldarrikatzea dinamika biziak geldiarazteko modua izan da. Orain arte defentsa, erantzuna izan da CDRon logika. Orain prozesu konstitugileari ekiten dago presa. Ekonomia eta politika adituak ari dira prozesu konstitugilea lantzen, eta hor ere herritarrek parte hartu behar dugu, zeren eta Europako Errepublika liberalak ez zaizkigu eredu, eliteen menpe ez dagoen eta politika soziala egiten duen Errepublika

nahi dugu”. CDRek era guztietako herritarrek auzolanean jarri dituztela eta konstituzio berriaren oinarriak lantzeko gune aproposenak direla azaldu dute. Entzuletik batek ezadostasuna adierazi du: “Orain CDRetan prozesu konstituziogilea lantzen hastea, indarrak sakabanatzea iruditzen zait, badira Omnium, ANC eta beste erakunde batzuk...”. Terrassakoak erantzun dio, “CDRak baino ezer transbertsalagorik ez dago, ezin zaigu dispertsioa leporatu, ez da dispertsioa, aberastea da. Eztabaidak aberatsa izan behar du, eta CDRekin ekarpena hori da. Guk ez dugu inola inposatuko ez desprestigiaturiko Omniumek-eta egiten dutena. Gurea sozialagoa dela uste dugu, eta ez dagoela ordezkaturak erakunde batzuetan”. Publikoko beste kide baten hitzak jaso ditu denen txaloak: “CDR-Omnium-ANC ez dira gauza ezberdinak. Ni hirueta nago, ni enpresaria naiz, nire langileak grebara joango dira eta kobratuko dute. Prozesu hau denona da. Baina argi dago ezin dela utzi soilik politikarien eta eliteen esku konstituzio berri bat, bestela 1978an bezala sartuko digute gizartearen zati batena soilik den konstituzioa. Eta herritar denak hartu behar dira konstituzio horretan, baita nik bezala pentsatzen ez dutenak ere”.

“Ez dugu aurreikusi eta praktikan jartzeko mekanismorik ez dugu”

Arratsaldean Sabadellera jo dugu, CUPEk antolatutako jardunaldi internazionalistetara. Benet Salellasek jardunaldiak irekitzerakoan egin duen aitor-tzak urdailean zaztatekoa eragin digu: “Ez dugu ulertzen zergatik ez den ari Gobernu katalana Parlamentak ostira-lean adostutako dekretuak martxan jartzen, Gobern legítimo moduan jokatzeko. Ahultasun seinale da. Aurreikuspen politikorik eza dago horren oinarrian, eta CUP ere parte izan gara horretan, prest egon behar genuelako eta inoren aurreikuspenetan ez zelako sartzen aldarrikapena egin zen moduan egiterik. Mugimendu aurre-iraultzaile edo altxatzaile batek, ez badu mekanismorik bultzatzeko, ezin ditu egikaritu mugimenduak hartutako erabakiak. Kataluniak asumitu du errepublika aldarrikapena estatu aparatuturik gabe (ejertzitorik gabe, gorputz judizialik gabe eta poliziarik gabe). Arrazoiaren indarra da gurea, gainezka egiten duen herritarren desobedientzia zibila dugu legitimatzaile, baina arrazoiaren indar hori nola martxan jarri? Oso zaila da mekanismo alternatiborik gabe, autoeraketa paralelorik gabe, 155. artikulua eskuhartutako boterea berreskuratzea”.

Pau Llonch:

“Gatazkaren bidez Espainiako Estatua mahai batean eserarazi behar dugu”

Pau Llonch (Sabadell, 1982) musikaria eta ekintzaile politikoa da. At Versaris rap taldeko, PAH plataformako, Crida per Sabadelleko eta CUPEko kidea da. Zurrunbiloaren erdian harrapatu dugu, eta analisi zorrotza estimatu diogu.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaiz

Prozesua luzea izan da, baina Errepublika aldarrikatzera iritsi da. Zer azpimarratuko zenuke zazpi urte hauetatik?

Ezkerretik egin dugun balorazioan nabarmendu dugu autodeterminazio prozesuaren hegemonia pixkana posizio errepublikazaleetara biratzen joan dela, eskubideen konkistara, eta geroz eta urrunago dagoela gako identitario esentzialistetatik. Ezker independentistaren tesi errealistenak eta materialistenak finkatzen joan dira prozesuaren markoan, eta minik eta gatazkarik gabeko eszenario bat irudikatzen zuten ikuspegi idealistenak bidean geratu dira. Jende askorentzat esnatze handia izan da prozesua, bloke independentistakoak barne, masak politizatze prozesu herrikoiei bat.

Kataluniako gizartea, beraz, ezkerreara biratzen ari dela esan genezake?

Ukaezina da. Prozesu independentistan eskuineko aktoreek beren lidergoa finkatuko bazuten, beren espazio politikoari ez zegozkion posizioak defendatzen amaitu dute. Orain aste gutxi

Puigdemontek mitin batean mahai gainean jarri zituen Espainiako Konstituzio Epaitegiak atzera botatako legeak, neguan jendeari argindarra moztea debekatzen zuena, adibidez. Bere burua behartuta ikusi du diskurtso hori erabiltzera, hori delako prozesuari aurrera egiten uzten dion diskurtso bakarra.

Zein ari da izaten CUPen lana urte hauetan?

Lan handia egin du aipatu dugun ezkerrean zoko biraketa bultzatzen, prozesua posizio horietan finka zedin, independentismora jende berria erakartzeko. Beste inork aterako ez zituen gai batzuk agenda politikoan jarri ditu, izan ordena sozioekonomikoari buruzkoak, genero kontuak, errepresioaren aurkakoak, internazionalistak... independentismo ez nazionalista bat eraikitzen lan egin du.

Eta azken hilabeteetan?

Autokritikoa izango naiz. CUPEk instituzio mailan duen papera minimizatu dute eta prozesuak dinamika elitista izan du azken aldian, *despatxista*. Hori gertatu den guztietan, akats estrategikiko edo taktiko potoloak egin dira. Urriaren 10ean, independentzia aldarrikatu eta bertan behera utzi zen egunekoa adi-

bide ona da. Kataluniako herriarekin Generalitateak politika komunikatibo oso txarra egin zuen, itxaropen faltsuak sortu zituzten bazekitenean zer gertatuko zen. Ezker independentistarekiko ekintza desleiala izan zen, gure jendeak ez zekien irakurriko zenaren edukia eta gainera, azken orduan aldatu egin zuten. Azken asteetan dinamika hori izan da, eta kezkatu egin behar gaitu. Mugimendu guztiaiekiko informazio eta komunikazio falta horrek atea irekitzen dio geure burua eroso aurkituko ez genukeen agertoki bati. Datozen asteetan CUPEk lan egin behar du maila instituzional eta herrikoian berreskuratzeko azken urteetan izan duen protagonismoa, eta PdCat, ERC, ANC eta Òmniumek osatzen duten Estat Major horretatik ez marjinaua gelditzeko.

Espainiako ezkerrearekin eztabaidan ikusi zaitugu...

Eztabaida sutsu eta publikoa egitea erabaki genuen oso atsekabetuta geundelako Espainiako ezkerrearekin, beste zerbait espero genuelako. Espainiako eta Kataluniako eskuinekin ez nago atsekabetuta, badakigulako zein agertoki saiatuko diren ekiditen beti, baina Espainiako ezkerrek huts egin digu. Gai

ekonomiko eta sozialetan eztabaida interesgarriak partekatu ditugun jendea oso atzerakoi ikusi dugu gai nazionalari dagokionean. Espainiako eta Kataluniako ezker ez-independentistek ez dute eztabaidarik egin gai honen inguruan azken 40 urteetan. Manuel Delgado komunistak kontatzen duenez, posizio ezberdinak zeudelako eta ez zelako "lehentasunezkoa". Ezkerraren ikuskera oso etapista iruditzen zait, nolabait esanez "lehenik klase kontraesanak konpondu behar dira, eta gero beren pisuz eroriko dira beste gaiak, izan generoari lotuak edo auzi nazionala. Nazionalismo espainiar naturalizatua ezkututzen dute.

Zer iruditu zitzaizun Urkullu lehendakariaren bitartekaritza?

Estatuko nazioek dituzten proiektu nazionalen alderik okerrera gorpuzten du EAJk. Gai nazionala status quoa indartzeko erabiltzen du, Euskal Herriko bere klase interesak kudeatzeko, eta gainera, beste proiektu nazionalen xedeak kalteztzen ditu, beren burua aurkeztuz nazionalista zentzudun bezala. Azken hilabeteetan prozesu katalanarekiko paperik kaltegarriena jokatu du EAJk.

Eta Puigdemont hauteskundeetara joateko prest egotea?

Prozesuaren fase oso elitistan gaudela agerian uzten du U1eko agente herrikoia bertan behera uzteak. Autodeterminazioaren aldeko eta Estatuaren aurkako borroka objektiboki pertsonifikatu dutelako, mugimendu soberanistaren babesa duten pertsona batzuek gaitasuna dute atzera egiteko. Horrek gehiago kezkatzen nau EAJrenak baino.

Azkenean errepublika aldarrikatu zenuen eta Espainiako Estatuak 155. artikulua indarrean jarri du. Zer espero duzue?

Estatuak erakutsi du fase errepresibogarrantzitsu bati ekiteko gai dela, baina kontziente dela, jarrera erabat biolentoa hartzeak bere zilegitasunari azpiak jaten dizkiola etxean eta kanpoan. Tuskek Rajoyri esan zion biolentziarik gabe konpontzeko eta horrek mugatu egiten du Estatuak 155. artikulua aplikatzeko duen margena. Adibidez, ikusi du TV3, Catalunya Ràdio eta ACNko langileen erresistentzia eta horregatik utzi ditu hedabideak albo batera. Badakite oso zaila izango dutela hezkuntzaren alo-

rrean eskua sartzea, murrizketak pairatu arren, oso ongi baloratutako sektorea delako. Huts egingo dute hor sartzen saiatzen badira. Alde horretatik baiko-rrak izan gaitezke, baina Kataluniako Gobernuak kideen aurka errepresio kanpaina gogorra dator: kontseilariak karguetatik kenduko dituzte, atxilotak egon daitezke, eta hor erreferendumetik antolatzen ari diren herri mugimenduek paper garrantzitsua dute jokatzeko.

Nola dago kalearen eta instituzioen arteko harremana?

Ez nago ziur Kataluniako Gobernuak konfiantzarik duen herri mugimendu horretan, ea konturatzen den zer nolako indarra izatera hel daitekeen. Aldarrikapenaren osteko lehen erreakzioetan ez dira oso adre-emaile ibili. Errepublikaren aldarrikapena gauzatzeko dauden zailtasun objektiboak ikusita -lurraldearen kontrola edo estatuaren oinarriak jartzea-, askok agindu garbiagoak espero genituen mobilizazio iraunkorra mantentzeko. Gatazkaren bidez Espainiako Estatuak mahai batean eserarazi behar dugu. Gauza asko dago negoziatzeko. Uste dut Kataluniako Gobernuak zalantza dagoela, ez duela sartu nahi eszenario batean non ez duen kontrolatzen orain kontrolatzen duen bezainbeste. Daukagun gauza bakarra da ezegonkortasun ekonomiko eta politikoa eragitea, Estatuari kalte eginez, eta nazioarteko agenteak bertan sartzera behartuz, negoziazio mahai hori gauza dadin.

Zein dira aurrera begirako gakoak?

Trantsizio legeak jasotzen duen prozesu konstituentea edukiz betetzea izango da ezker independentistaren erronka handiena. Nazionalistak ez garen jende asko sartu gara prozesura arrazoi horregatik. Badago aurrerakoia den hegemonia sozial bat, politika publiko eta komunitarioak aurrera eramateko, austerokraziaren eta Troikaren diktaduraren alternatibaren adibide izan daitezkeen. Uste dut egiteko moduan gaudela, agian independentista ere ez diren aliatuekin, eta uste dut gauden momentu politikoan bide erakusle izan daitekeela, European anomalia bat. Errepublika modu efektiboan nola eraiki nahi dugun eztabaidatu behar dugu, zailtasunak zailtasun, objektibo eta materialak.



Guikuri
01138 Murua (Araba)
info@guikuri.com
www.guikuri.com
Telefonoak:
945 464 084
615 782 323 / 685 737 210



EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
tradebi@tradebi.com

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

Pepe Beunza, En Peu de Pau: "Tankeak ateratzen badituzte ere prestatuta gaude. Eutsiko diogu"

Pepe Beunza Espainiako Estatuko lehen kontzientzia politikoko objektorea izan zen eta hiru urteko kartzelaldiarekin ordaindu zuen. 1947an Jaenen sortu eta 9rekin Valentziara bizitzera joana, Bartzelonara jo zuen kartzelatik ateratakoan, objekzio kolektiboa antolatza, eta bertan bizi da geroztik. Aita nafarra zuen eta aitona, Joaquin Beunza, Iruñean kale baten izena duena. En Peu de Pau plataforman dihardu, independentziaren aldeko borroka denak indarkeriarik gabeak izan daitezzen, herritarrei formazio tailerrak ematen.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Espainiako Estatuaren errepresioa noraino iritsi daitekeela uste duzue?

Ez dut uste tankeak aterako dituenik, hanka-sartzea litzateke. Baina tankeak ateratzen badituzte prest gaude bandera zuriekin aurrean jartzeko eta gerra krimenak egitera behartzeko. Txarrenerako prestatzen ari gara, zer egin dezaugu ba? Eutsiko diogu.

Errepresioari aurre egiteko prestatzeko bost dekalogo atera dituzue eta seigarrena lantzen ari omen zara, kartzelaz.

Bi Jordien seme-alabek oso harro egon behar dute, beren gurasoak kartzelan daudelako eta nazioarteko giza eskubideen ohorezko kide izatera pasa direlako. Eskuburdinak jartzea, ohorezko domina bereizgarria jartzearen baliokidea da. Ohorea da kartzelan egotea, ni oso harro nago preso egon izanaz.

Kartzela gogorra da, han ez da ongi egoten. Baina eusten zaio (beti ere,



kondena urteen arabera) eta kartzelatik are indartuago atera zaitezke. Niri horrela gertatu zitzaidan. Guk ez dugu uste kartzelan luze egon beharko dugunik, hilabetetan egon beharko dugula espero dugu.

Baina kondenak urte luzekoak dira...

Hori gure esku egongo da! Jordiek urtetan egon behar badute zuloan, hobe egongo da kartzelan kalean baino! Hori gertatzen bada, kartzelak okupatzeko unea izango da. Beldurra kendu behar zaio kartzelari. Luther Kingek kartzelak pobreen unibertsitate bihurtu zituen. Gandhirekin 60.000 indiar egon ziren kartzelan. Zenbat preso eusteko gai izango da PPren Gobernuak, bera eta Europa lotsaz erori gabe? Espero dugu mutur horretaraino ez iristea, baina prest egon beharra dago. Borrokatzen ez baduzu hilda zaude; eta hemen bizi-rik gaude.

155. artikulua aplikatzen dutenean, desobedientzia zibila izango al da estatuaren esku-hartzeari eusteko gakoa?

Jendea prestatzen ari da erresistentzia

pasiboa egiteko, boikot leunerako, eta Kataluniako Gobernuak esaten duen arabera ere izango da, gu herri antolatua baikara. Ideala ekintza bateratua litzateke. Ikusiko dugu antolatzen dutenek zer dioten, guk ez dugu antolatzen, guk indarkeriarik gabeko borrokarako erremintak ematen ditugu. Erakundeak eta Gobernuak dira zuzentzen dutenak.

Kataluniako jendea kontziente da Espainiaren errepresio gaitasunaz?

Ez, ez duelako bizi izan. Jende gehienak ez du frankismoa bizi izan baina hori azkar ikasten da. PPren basakeria ezagututa, nik uste jendeak ongi erantzungo duela. Bazen uste zuenik ez genuela prezio handiegirik ordaindu beharko, baina dagoeneko bi lagun daude kartzelan. Orain ezin ditugu kartzelan usteltzen utzi, bi horiek aurrean zihozten gu atzetik gindozelako. Askatasuna lortzen duten herriek bere duintasuna lortzen dute. Garrantzitsuena da jakitea zure duintasunak zer balio duen. Eta hortik aurrera, ekin. ■

Mingaina, gorputzaren mapa

Pazientearen ahoa zabal-zabalik, mingaina kanpoan eta medikua barrura begira. Nork ez du irudi hori buruan gordeta? Ezkutuan dagoen gorputz atal honek hamaika gauza kontatzen ditu gure osasunari buruz.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA



Medikuntza txinatarrean oso garatua dago mingainaren diagnostikoa. Ezin da ulertu baina, elementu isolatu bat bezala. “Diagnostikoa egiteko informazioa ematen digu mingainak, baina informazio guztia lortzeko gauza gehiago aztertu behar da”, azaldu digu Egoitz Garro makrobiotiko eta landareak baliatuz sendagaiak sortzen dituen espagiristak. Besteak beste, aurpegia, belarria, irisa, pultsua, abdominalak eta egoera emozionala lantzen dituzte mingainarekin batera, arlo fisikoa, psikikoa, energetikoa eta espirituala aztertuz. “Pertsona bere osotasunean ulertzen saiatzen gara, dena uztartzen baita batean”.

Berez, medikuntza tradizional guztietan dago mihiaren diagnosia, baina egia da hainbatek buruan dugun irudi hori, sarreran aipatu duguna, jada ez dela ohikoa, edo oso gutxi. “Galeno Pergamokoaren medikuntza alde batera utzi zenean eta gaur ezagutzen dugun medikuntza garatu zenean alde batera utzi zen. Lehen mediku guztiek beharrezkoa zuten mingainak eta begiak begiratzea. Eta orain, ukitzen bazaituzte, gaitzerdi”, azaldu du Garrok. “Sistemak paradigma aldaketa eman du. Medikuntza izugarri arrazionalizatu da eta erabat alboratu da alde gizatiarra, bezeroarekiko kontaktu fisiko eta psikikoa. Dena makinariaren

menpe utzi da; X izpiak, erresonantziak, ekografiak eta analitikak kenduz gero medikuak ez daki diagnostikoa egiten, esperientzia handia ez badu behintzat”. Medikuntza txinatarra paradigma oso bestelakoa da eta ezagutzearen garrantzia azpimarratu duela dio.

Ideologia gisa, gorputzaren mapa mingainean idatzita dagoela kontatu digu adituak, mingainak gorputz osoa islatzen duela. Atal bakoitza organo bati dagokio. Areaz area aritu, faktore bakoitza irakurri eta ondorioak ateratzen dira: “Pertsona batek urdail aldean kaparik ez badu, adibidez, mukosa gaizki dagoela esan nahiko du normalean, sistema digestibo horretan zerbait ez dagoela zuzen. Gastritis bati begira jarriko ginake”.

Mingainaren diagnostikoa hiru ezau-garriren arabera egiten da: kolorea, kapa eta forma. Koloreak gorputza nahikoa hidrataturik edo lehorra dagoen kontatzen du. Baita zirkulazioa ona eta odola aberatsa den, alegia, anemiarako joera ote dagoen. Arlo fisikoaz gain, psikikoa ere antzematen duela gaineratu du: “Mingainaren punta bihotzari dagokio, fisikoki zein emozionalki. Estres emozionala dagoenean gorritu egiten da”. Mina daukagunean, gainera, mihia lekuz alda daitekeela azaldu du, dardara

egin eta alde batera joateko tendentzia izan dezakeela. Bestalde, kapak hezetasunari, hotzari eta beroari buruz informatzen du. Baita mukia dagoen edota gehiegizko koipea. Mingainaren itxuraz gain, mugimenduak ere gauza asko kontat ditzake: “Pertsona batek energiarik ez duenean apenas aterako du mingaina ateratzeko eskatzen zaionean, indar gutxiarekin egingo du. Mihiaren forma zapala izaten da halakoetan”.

Ispiluaren aurrean mingaina atera diezaiokegu geure buruari, beraz, eta kolorea, forma eta kaparen arabera analizatzen ikasi. Adituak adibide batzuk eman dizkigu: “Udazkenean oso ohikoa da hotzeria edo katarroa harrapatzea. Mingaina, beraz, geruza zuriz ikusiko dugu. Egoera emozional intentsua igarotzen ari bazara, mingainaren punta gorritu egingo da. Digestio txarra eta ahoa lehorra duenak mingaina zatituta izango du, kaparik gabe eta gorri-gorria. Horrek gorputzean likido falta dagoela esan nahi du. Linfa, ur edo odol falta islatu dezake”. Mingainak informazio asko ematen badu ere, beste elementu bat dela azpimarratu du Garrok, pertsona osotasunean landu behar dela: “Nik, adibidez, taupadei ematen diet garrantzia handia, diagnostikoa zehatzagoa eta fidagarriagoa baita”. ■

“Haurrek Halloween ospatzeari esker jakin dugu gurean ere kalabazekin jolasten zutela duela ehun urte”

Halloween ospatzera gonbidatu zutela esan zion alabak Jaime Altunari eta honek festara joaten utzi zion, baina deseroso sentitu zen. Altunak bere aitari kontatu zion gertaturikoa, eta honek erantzun, eurek ere ospatzen zutela halakorik. Fenomenoa ikertzen urte eta erdi eman dute Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoek. *Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen gaua, Halloween eta Gau Beltzaren haur ospakizunen ikerketa etnografikoa* osatu berri dute, Eibarko Udalaren Juan Sanmartin bekari esker.



Andoni Mikelarena

@andonimik

ARGAZKIA: ALTUNA ETA OZAITAK UTZIA

Zenbaterainoko indarra du Halloweenek Euskal Herrian?

Jaime Altuna: Euskal Herrian oso zabalduko dago, batez ere komunikabideei esker. Lagunartean elkartzen dira haurrak, elkarrekin moxorrotu eta iluntzean eskean ateratzen dira. Etxeetan baino gehiago komertzio eta tabernetan eskatzen dute. Leku askotan ezezkoa jasotzen dute ordea. Talka dago heldu eta haurren artean.

Gurean, zein da jatorrizko ospakizuna data horietan?

Altuna: Ohartu gara azaroaren 1aren eta urriaren 31ren inguruan gauza ezberdinak ospatzen direla Euskal Herrian. Mugimendu bat badago gauza berriak sortzen eta garai bateko praktikak berreskuratzen ari dena.

Josu Ozaita: Azaroaren 1ean, Arimen gaua da ospakizunetako bat. Mutriku hasi ziren ospatzen 90eko hamarkadan eta herriko elkarte ezberdinek antolatzen zuten. Gaur egungo Arimen Gauaren aldean ordukoa gazteei begira zen. Gaztetxeak, tabernekin parte hartzen zuten, gauean parranda egin ohi zen. Elgetan, haurrak Halloween ospatzen hasi ziren eta horren erreakzio modura sor-

tu zuten helduek 2013. urtean Arimen Gaua. Polita da debekatu beharrean ospatzeko bide eman izana, haurrentzat ospakizun erakargarria baita. Lagunartean elkartzen dira, iluntasunean, eta haur batentzat lagunekin gaez ateratzen diren aurreneko esperientzia da. Moxorrotu egiten dira, emozio ezberdinak bizitzen dituzte... Kalabaza elementu zentraletakoa bat da. Euskaraz egin ohi dute jaia eta arimari garrantzi berezia ematen zaio.

Kalabaza Halloweenekin lotzen dugu askotan, baina aspalditik datorren kontua da.

Altuna: Kalabaza, arbia edo baratzean zegoena erabiltzen zuten garai batean, Europan oso zabalduta zegoen. Baratzeetan horrelakoak zeudenean hartu, kandelak jarri eta bidean zetorren jendea izutzea zen helburua, udazken partean egiten zen jolas moduko bat zen, ez festa bat.

Ozaita: Landa eremuetan egiten zuten. Ez zegoen gaur egungo mugikortasunik eta horrelako jolasak asmatzen zituzten. Kalabazari buru-forma hartzen zioten eta horrekin jolasten zuten. Beldurra emateko, iluntasunean.

Arimen Gauaren ordez Gau Beltza ere ospatu ohi dute zenbait lekutan.

Altuna: Antzeko eskema dute. Ari-

men Gauean garrantzi handiagoa ematen diote arimari, heriotzari, eta Gau Beltzean berriz iluntasunari. Azken urteetan sortu diren jaiak dira, aitona amonek egiten zituzten zenbait erritu berreskuratu nahian, Halloweenen erreakzio modura. Eredu “amerikanoaren” aurka nolabait.

Eibarren bi eredu arteko talka topatu duzue. Batetik El Corte Inglés eta bestetik Arimen Gaua.

Altuna: Haurrak identitate borroka baten erdian daude, festa ere kapitalistaren eta horren aurrean antolatzen den erantzunaren artean.

Ozaita: Lehen kalabaza buru-formako jostailu moduko bat zen, gaur egun ordea, kalabaza bat ikusten badugu, AEBak eta balio kontsumistak datozkigu burura. Nahiz eta biak berdinak diren, zer nolako aldaketa!

Nafarroan berriz, eske erronda egiten dute.

Altuna: Azaroaren 1ean Nafarroako herri batzuetan eske erronda egiten da arratsaldean. Herriko haurrak elkartzen dira eta eske erronda egiten dute neguko beste jai askotan egin ohi den moduan. Etxez etxe joaten dira, esamolde bat esan eta etxeokoei intxaurrak, gaztainak edo gozokiak ematen dizkiete.



Jaime Altuna (ezkerrean) eta Josu Ozaita. "Haurrak identitate borroka baten erdian daude, festa eredu kapitalistaren eta horren aurrean antolatzen den erantzunaren artean".

Kristautasunak bereganatu zuen jai hau. Orain kapitalismoa ari al da horretan?

Ozaita: Festak hasieratik izan du heriotzarekin lotura. VIII. mendean Eliza Katolikoak heriotzaren gaia hartu eta Santu Guztien eguna sortu zuen. Festa egun horren gainean berea indartzea zuen helburu.

Altuna: Gaur egun kapitalismoaren eragina nabaria da, telebistan adibidez. Urrian jada haurrei zuzenduriko saioak Halloweenekin bonbardatzen dituzte. Merkataritza zentroetan dekorazioa, propaganda... Jolas-parke handiek gai hori ustiatzen dute. Ingeles akademien bidez ere oso zabalduta dago. Askotan uste ohi dugu festa kontsumista bat dela. Aldiz ohartu gara ez dela beste festak baino kontsumistagoa.

Ozaita: Haurrek ospatzen duten Halloween ia batere dirurik gastatu gabe egiten dute. Inauterietako moxorroak aprobetxatzen dituzte edo gurasoen kamisetak moztu, aurpegia margotu eta hilea harrotzen dute askok soilik.

Haurren ikuspegitik egin duzue ikerketa

Altuna: Ez zaigu gaizki iruditzen helduek horrelako festak antolatzea, baina uste dugu haurren parte-hartzea hasieratik bermatu behar dela. Hasieratik haurrei galdetu zer eta nola egin nahi duten.

Ozaita: Gazteentzako festak helduek antolatzeak zentzu handirik ez duen beza-

la, haurrei ere entzun beharko litzaieke.

Altuna: Halloween ospakizunik amerikarranean ere oso gauza politak aurkitu ditugu. Arratsaldean geratzen dira, pelikula bat ikusten dute. Elkarrekin moxorrotu, kalera atera eta sustoak ematen dituzte.

Altuna: Haurrak subjektu pasibo gisa hartzen dira. Guk ordea, elkarriketetan aurkakoa jaso dugu.

Haurrek eragindako fenomeno da orduan?

Ozaita: Eurak hasi dira ospatzen Halloween eta ia Euskal Herri guztira zabaldu da. Ekintza horren bidez jakin dugu duela 100 urte baino gehiago kalabazekin jolasten zutela. Horren ondorioz ari gara ikerketa egiten eta aldi berean elkarriketa hau egiten. Gai asko mahai gainean jarri dituzte.

Generoak ere eragiten al du jaiaren parte hartzeko moduan?

Altuna: Bai. Generoen arabera praktika desberdinak ematen dira. Sustoak ematen zituztenak normalean mutilak ziren, zerbait maskulinoa zen eta gaur egun ere eskema hori errepikatzen da. Eta neskak beldur horren hartzaile gisa agertzen dira.

Ozaita: El Corte Inglésen Halloween "Niños" eta Halloween "Niñas" atalak daude. Neskenak ponpoxotasuna erakusten du eta mutilenak maskarak, beldurra, heriotza.

AEBetan instituzioek Halloween baliatu zuten komunitatea trinkotzeko. Hemen halakorik egin zen?

Ozaita: Hemen bihurrikeri soil bat zen. Hala ere, orain antolatzen diren jaien helburuetako bat hori da. Gaur egungo ospakizunak Halloween aren oso antzeko ezaugarriak ditu. Balio eta identitateari beste ikuspegi bat ematen zaio, euskal mitologia... Plastikozko kalabazak erabili beharrean baratzeak erabiltzea adibidez.

Altuna: AEBetan, haien nazio identitatea eraikitzeko prozesuan zenbait elementu hartu zituzten, tartean Halloween. Zegoen kultura aniztasuna identitate kultural baten inguruan batzeko aitzakia izan zen.

Euskal identitatea indartzeko ospakizun hau gureganatzea garrantzitsua da?

Ozaita: Globalizazioarekin uste genuen ideia eta kultura guztiak homogeneizatu egingo zirela, baina ikusi da aldi berean lokalari garrantzia ematea ere eragin duela. Festa globala da, baina erreakzioa izan da bertakoari garrantzia ematea.

Altuna: Eredu uniformeari alternatibak sortzea interesgarria da.

Identitateari lotuta, hizkuntzak ere garrantzi berezia du.

Altuna: Garrantzitsua da hori elementu zentral bat izatea. Sortzen diren forma alternatibo horiek askotan euskara elkarrekin ari dira bultzatzen.

Ozaita: Hiru hitzaldi emango ditugu eta hirurak euskara elkarrekin antolatuak dira.

Heriotzaren gaia jai hauen oinarrian dago. Nola bizi dugu gaia?

Ozaita: Garai batean heriotza oso presente zegoen. Norbait hiltzen zenean etxean bertan egoten zen hildakoa. Jendea bertara joaten zen. Gaur egun ia inoiz ez da hildakorik ikusten. Landa eremuan animaliak hiltzen ikustea edo zerorrek hiltzea ere ohikoa zen.

Altuna: Adinekoekin gaia lantzean esan digute eurek presente izaten zizutela hildakoak gaztetan. Asko kostatu zaigu haurrei horri buruz galdetzea, gu urduri jartzen ginelako. Festa hauek heriotza elementu inportantea da eta zenbait taburen inguruan lanketa kolektibo bat egiteko baliagarriak izan daitezke. ■

UDAKO BARNETEGIA

Etiopiarra, austriarra eta bi hungariar euskara ikasten

Euskaraz ikasten eman dute udaren parte bat gure herrietako barnetegietan. Atzerritarrekin egin dugu lotura –edo ustez atzerritar genituenekin–, bertan bizi den askok bazterrera utzia duten hizkuntza ikasteko bidean esatekoak dituztenen bila. Hauxe kontatu digute...

**Miel A. Elustondo**

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gernikako etiopiarra

Yemisirach Adimassu-k (Addis Abeba, Etiopia, 2000) duela lau urte Gernikara ikasle etorria, DBH egina da herriko San Fidel ikastolan eta erizaintza modulu batean da orain Zornotzan, gehiago ikasteko guran gero. Addis Abebatik gurera etorri zen ahizpa Afrike hemen zuelarik. “Hemen bizi da, adoptatua. Ni ere adoptatu nahi izan ninduten, baina zahar txoa ni ordurako, eta ezin adoptaturik, ikasketa programaren bidez ekarri ahal izan ninduten”. Etorri orduko, hemengo hizkuntzarekin egin zuen topo, edo gurean hitz egiten direnekin. “Ez nekien euskara bazela ere, eta gaztelaniaz hitz egiten ere ez nekien. Hemen ikastolara hasi nintzenean, ingelesez egiten nuen lagunekin!”. Hizkuntza frankoak lagun du zion lehen harremanak egiten etorri berriari. “Espainian gaztelaniaz hitz egiten zutela baino ez nekien. Baina Euskal Herrira etorri nintzen, Gernikara, eta hemen euskaraz ere hitz egiten da. Eta, gainera, gustatu egiten zait euskaraz hitz egitea. Eta gaztelaniaz ikastea baino errazagoa iruditzen zait. Egia esan, gaztelaniaz baino askoz hobeto hitz egiten dut euskaraz. Etxean ere euskaraz egiten dugu”. Bitartean, ikastea dagokio, harako bertsolariaren aditz klase pila, hitzak beste mila... “Hasieran, dena zen

berria, aditz pilo hura eta. Dena kolpetik ikasi behar izan nituen. Lehen bi urteak gogorrak gertatu zitzaizkidan. Denbora alferrik galtzen ari nintzela ere pentsatu nuen inoiz. Ikasten nuen, azterketa egin, eta ez nuen gaingitzen. Negarrez hasten nintzen. Lagunek, berriz, animatu egiten ninduten. Eta gehiago ikasi behar izaten nuen, gaia errekuuperatzeko, eta gaingitzen nuen”. Azkenean, pozik Adimassu, pozik etxekoak, pozik irakasleak. “Nitaz harro daudela esan zidaten ikastolako irakasleek, zelan ikasi dudan!”.

Euskaraz Adimassu, entzutekoa da Gernikako euskararen doinuak, bizkaieraz hizketan. “Erizaintza, adibidez, euskaraz ikasiko dut Zornotzan, gehiago gustatzen zaidalako euskara gaztelania baino, eta hobeto moldatzen naizelako”. Erizaintza bidean ez da bakarrik izango. Ikaskide bi ere izango ditu Zornotzan, baina gaztelaniaz egingo dutenak. “Beraien artean ere gaztelaniaz egiten dute. Nik, lehen, gaztelaniaz zuzentzen bazitzaizkidan ere euskaraz erantzuten nuen beti. Orain, gaztelaniaz erantzuten hasita nago. Etorri nintzenean, kua-drillan euskaraz egiten genuen dena. Orain, gaztelaniaz gehiago euskaraz baino. Euskara galdu dudala nabaritzen dut”. Bitartean, barnetegi bitan izan zen udako oporraldian. Zornotzako Aurtan Bai-n izan zen abuztuaren bigarren hamabostaldian. “Hauxe da dagoena!” esan eta agurtu gintuen Gernikako etiopiar Adimassuk.

Hungariar bi eta austriarra

Unibertsitarioak hirurak, adin bertsukoak, nahiz nork bere bidea egina duen euskarari eta beste zenbait hizkuntzari dagokienez. Sara Molnar (Budapest, Hungaria, 1992), gaztelaniaz eta euskaraz mintzatu zaigu. Gaztelaniaz ikasten hasi zenean jakin zuen euskara ere bazela oraintsu lau urte. Latinoamerikan izan zen, boluntario lanetan Peruko hegoaldean. Dena beharrean ziren haurrak zaintzen eta jolas eginez ikasiz. “Nik orduan ez nekien gaztelaniaz, baina hango haurrei jolasaren bidez irakasten genien nola irakurri eta idatzi behar zuten. Ondoren, Erasmus ikasle izan nintzen Salamancan urte erdiz. Hantxe ikasi nuen ondo gaztelaniaz, eta jakin nuen Espainiako Estatuan euskara ere bazela. Budapestera itzuli nintzenean gaztelaniazko eskolak hartu nituen unibertsitatean eta hizkuntzak ikasteari lotu nintzaion: errusiera, gaztelania eta euskara”. Sara Molnarrek Etxepare Institutuaren euskara eta euskal kultura irakurle Oxel Uribe-Etxebarria izan du irakasle Budapestean.

Marilena Opferkuch (Graz, Austria, 1996), gaztelaniaz zuzen mintzo, anekdotaren jabe da. “2009an, UEFAko Kopa –Europa Liga du izena orain–, txapelketako partida zen bizi nintzen herrian, Salzburgon. Bilboko Athleticen kontra jokatu zuen etxeko taldeak, eta orduantxe aditu nituen izen haiek lehen aldiz: Bilbo, Euskadi, euskara... Deigarri egin zitzaiz-



Ezkerretik eskuinera: Yemisirach Adimassu (Etiopia), Sara Molnar (Hungaria), Marilena Opferkuch (Austria) eta Viktor Ulicsni (Hungaria).

kidan. Urteak igaro eta iaz hasi nintzen benetan euskaraz ikasten, Leipzigeke unibertsitatean". Unai Lauzirika irakurlearekin, esan digunez. Leipzigen, dena den, euskara, galiziera eta katalan irakurleak dituzte. Marilena Opferkuchek euskara aukeratu zizun. Eta, zergatik euskara? "Zergatik ez?", bere erantzuna, eta ondoren: "Nahi dudalako".

Lehen aldia du barnetegian, Etxepare Institutuaren beka baliaturik. "Urtean bi beka eskaintzen ditu gure unibertsitateak. Aurten etorri naiz, datorren urtekorik ez dakit. Ez da zuzena nik beka berritzea, badira-eta ikasle gehiago etorri nahi dutenak. Etortzekotan, neuk ordainduko nuke ikastaldia".

Viktor Ulicsni (Nagykoros, Hungaria, 1989), ingelesez eta euskaraz zuzendu zaigu, gaztelaniaz tutik ere ulertzen ez duela. "Beti interesatu izan zaizkit atzerriko hizkuntza eta kulturek. Beharbada hamar urte nituen *Basque*-rekin topo egin nuenean. Etnobiologia da nire arloa. Komunitate bateko kideek basapiztien gainean duten jakintza". Ulicsni ez

dauka maila jakin batera iristeko helbururik. Zaletasuna du. Iragan ikasturtean euskaraz ikasten jardun zuen Budapes-teko Unibertsitatean, eta horretan da aurtengoan ere.

Hizkuntzak ikasten ari dela, Molnarrrek badu munduko hizkuntzak ikasteak dituen korapiloen berri. "Euskara ikastea, adibidez, zaila zait, baina ez hain zaila ere. Hungarieran ere hitzaren amaieran jartzen ditugu preposizioak, eta hitz ikaragarri luzeak osatzen ahal ditugu. Horrek ez dit ikasketa errazten, baina laguntzen dit. Bestalde, gaztelaniaz ere ikasi dudanez, amen batean entenditu dut euskararen aditz denboren jokoa. Zornotzako barnetegian sartuta egon eta esateko moduan nago: inoiz ez dut hizkuntzarik hain bizkor ikasi, hauxe da ikastaroaren trinkoa!". Opferkuchek erantsia: "Egunean zortzi esko-

la-ordu, eta gainerakoa ere euskaraz, nahi nuke hizkuntza bizkor ikasi!".

Opferkuchek ez du zailtasun apartekorik. "Euskarak gramatika zaila duela esaten da, deklinabide kasuak, aditz paradigmak... Baina praktikatuz gero, ez da zaila. Nor-nori lantzetik etorri gatzazkizu elkarrizketara, eta airean ulertu dut, alemanez berdintsu baita". Jakina, beti ez da horrela. "Niri hitzak ikastea zait neke, hots berdina dutela iruditzen zait: 'garbitu', 'galdetu', 'aurkitu'...". Horiek gogoan jostea du neke: "Eta nabari da: gainerako ikasleek guk baino askoz gehiago dakite. Gu beti ari gara 'ez dakit' esanez". Ulicsni orduan: "Bai. Gehienek txikitandik aditua dute euskara. Batzuek, aitaita-amamei aditua; beste batzuek, eskolan. Horiek burmuinean dute hizkuntzaren ezagutza halako bat, bat-batean loratzen dena. Guk ez dugu horrelakorik. Baina bidea egin dugu, eta oso harro egon gintezke".

Lau ikasle atzerritar, udan Euskal Herrian, euskara ikasten Zornotzako Aurtan Bai-n. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
www.bizkaia.eus



Haurdunaldi subrogatua

BAI ALA EZ BAINO HARAGO

Aurreko mendeko 80ko hamarkadan jakin zuten zientzialariek emakume bat norberaren obuluz ernaldu ez zen umeaz erditu zitekeela. Orain herritarron ahotan dago gaia, gure ingurukoek egin dutelako edo egin nahi dutelako, eta batez ere, aldeko eta aurkako iritzi abaniko handia dagoelako. Euskal Herrira 250 haur inguru datoz urtero atzerriko emakumeen umetokietan hazita. Hemen debekatuta dago. Eztabaida ez da legeztatu edo debekatu, hori baino askoz korapilatsuagoa da. Konplexutasun hori ulertzeko gakoak eman ditugu erreportajeon.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Guraso izatea, desioa ala eskubidea?

Pertsona orok guraso izateko eskubidea dauka ala guraso izatea nahia da? Etxebizitza izateko eskubidea daukagu, ordainpeko lana izatekoa, osasun zerbitzuak jasotzekoa...

Nork du eskubidea zertarako? Gurasoak du eskubidea haurra izateko? Umetokia eskaini duen emakumeak zein eskubide ditu? Eta jaioko den haurraren eskubideak zein dira?

Batzuen ustez, eztabaida honetan desioak eskubide mailan jartzen ari dira, eta eskubide batzuk beste batzuen gainetik jarri dira. Guraso izateko erabaki askeak gainerakoa gailendu du.

Baliabideak eskura izateko eskubidea

Gauza bat da guraso izan nahia eta beste bat horretarako dauden baliabideak denon eskura egoteko eskubidea. Guraso izateko modu bat baino gehiago dago: adopzioa, harrera familiak, obulu eta esperma donazioa, in vitro teknika,

subrogazioa... Baliabide horiek herritar guztien eskura al daude? Bikote heterosexualek, gay bikoteek edo lesbiana bikoteek, emakume bakarrek, eta gizon bakarrek, aukera berak al dituzte baliabide horiek eskuratzeko? Maila sozioekonomikoaren arabera ez al dute herritar batzuek baliabide horietara heltzeko aukera gehiago? Baliabide ekonomiko gutxien dituztenak ez al dira jokoan kanpo gelditzen?

Gayen kontua ote da subrogazioa?

Hedabideetan zenbat bikote heterosexual agertu dira ordezkapen bidezko ernalketa edo subrogazioa legeztatzeaz hitz egiten edo atzeritik ekarritako haurrak erakusten? Ez ote ditugu gay bikoteak gehiago entzun? Ahots batzuek diote gayen lobbya lehen lerroan jarri dela subrogazioa legeztatzearen alde. Beste ahots batzuek diote haurdunaldi subrogatuan bitartekaritza lana egiten duten enpresek berariaz bikote homo-

sexual gizonezkoak lehen lerrora ekarri dituztela: "Emakumeekin alderatuz guraso izateko aukera gutxiago dute, guk aukera eskainiko diegu". Beste kontu bat da ordezkapen bidezko ernalketa egin duten edo egin nahiko luketen bikote heterosexualek zergatik ez duten nahia publikoki adierazten: ez dago ondo ikusia; gurasotasun eredu tradizionalari eutsiz, subrogazioa ezkutuan izan eta gero haurra "betiko eran" izan dutenaren itxura eman daiteke...

Kanadan haurdunaldi subrogatua egin duten bikoteen %20 gizonezkoak dira. Han truke komertzialeko subrogaziorik ez da onartzen, doakoa izan behar du eta osasun zerbitzu publikoen bidez kudeatzen da prozesua. 2014an, 1998 eta 2012 urte artean egindako ikerketaren emaitzak plazaratu zituzten: ordezkapen bidezko ernalketara jo zuten herritarren %80 ez dira bikote gizonezkoak.

VAE eta Subrogalia subrogazioan bitartekaritza lana egiten duten enpresa

espainiarrak dira. Antzeko datuak eman dituzte enpresok: Subrogaziora jotzen duten pertsonen %70-80 bikote heterosexualak dira. Gainerakoak gizonetako bikoteak, gizon bakarrak, eta gutxiago emakume bakarrak dira.

Emakumeak bere gorputzaren gain askatasunez erabakitzen al du?

Haurra bederatzi hilabetez bere sabelean izango duen emakumeaz ari gara. Emakume horrek ez al dauka eskubiderik berak erabakitzeke ordezkapen bidezko ernalketa egin nahi duen ala ez? Nor da nor hari ezer esateko? Subrogazioaren aldeko eta aurkako iritzien artean asko azpimarratu den ideia da. Gaur egun, munduan ordezkapen bidezko ernalketa egiten duten emakumeak oso baldintza desberdinetan ari dira horretan, eta egoera sozioekonomiko oso desberdinak dituzte. Bigarren ideia hori da subrogazio komertzialaren aurka hitz egiten dutenek mahai gainera ekartzen dutena. Hau da, gauza bat da norbere gorputzaz erabakitzeke eskubidea eta beste bat behar ekonomikoak eraginda ordezkapen bidezko ernalketa diru iturri berebizikoa izatea. Eskaera dagoelako dago eskaintza, hala diote batzuek.

Adibideak oso desberdinak dira, ordea. Indian emakumerik pobreenak ari dira haurdunaldia burutzen, bitartekaritza enpresen eskuetan euren gorputzak utziz. Haien ohiko bizitzan baino askoz hobeto zaizkaien sentitzen dira kliniketan, 24 orduz haien osasuna zaintzen (kontrolatzen) dute, eta sekula baino hobeto jaten dute bederatzi hilabetez. Urteetan irabaziko ez luketen dirutza jasotzen dute. Pozik dira emakumeok. Alabaina, zergatik erabaki dute subrogazioa egitea? Zorrak kitatzeko, alabaren ikasketak ordaintzeko, etxea erosteko, alaba "ondo ezkontzeko"...

Oso bestelako adibidea. Kanadako emakumea. Lagun batentzat izango du haurra, diru irabazirik gabe. Atzean ez dago arrazoi ekonomikorik eta prozesua osasun publikoaren bidez kudeatuko da. Hirugarren adibide bat. Ameriketako Estatu Batuetako emakume bat. Ez du Kanadakoak moduan altruismoz izango haurra, berak milaka dolar ko-bratuko ditu. Ezin du diru-laguntzak jasotzen dituzten herritarren zerrendan egon, bestela ezingo luke tratuan sartu. Familiako ekonomian aparteko dirua izatea da bere nahia.

Hirurek jo dute ordezkapen bidezko ernalketara. Oso adibide desberdinak dira, ordea. Zenbateraino gauzatu da kasu bakoitzean erabakitzeke eskubidea askatasunez? Zenbateraino eragin du emakumearen erabakian behar ekonomikoak?


Haurdunaldian

Emakumeak subrogazioa egiteko duen eskubideaz hitz egin dugu. Beste kontu bat da, hala egitea erabaki eta gero, haurdunaldian zein eskubide dituen eta noiz arte. Erabakitzeke eskubideaz ari garenean ondoko egoerez ari al gara? Haurdunak erabakiko al du umea erditzea edo zesarea egitea? (Diru trukeko tratuetan zesarea baldintzen artean dago: haurdunak gutxiago sufritu dezan, umea politagoa atera dadin, zailtasunak saihesteko...). Haurdunak izango al du eskubiderik umea jaiotakoan berak hartzeko? (Kanadan eta Europako hainbat herrialdetan badute horretarako aukera). Zer gertatuko da eskatzaileak haur bat eskatu badu eta bi badatoz? Haurra gaixotasunen batekin badator, zein da erantzule? Haurduna nor izan zen jakin-go al du umeak ala halako informaziorik ez zaio emango?

Nazioarteko adibideak ikusita, or har, esan daiteke tratua zenbat eta komertzialagoa izan eta zenbat eta bitartekaritza enpresa gehiago izan orduan eta eskubide gutxiago dituela haurdunak. Aldiz, tratu altruistetan eta erakunde publikoen esku-hartze sendoa dagoen tokietan haurdunak haurdunaldian erabakitzeke eskubide gehiago du.

Familia ereduaren abanikoa zabaltzen ari da


Familiak osatzeko gero eta modu gehiago daude. Ordezkapen bidezko ernalketa ez da eztabaidarako dagoen gai bakarra eta ez da azkena izango. Bere bakardadean aztertu eta arautu beharrean testuinguru osoa berrikustea eskatzen du. Aztertu beharko litzateke nola dagoen arautua adopzioa, nork duen adoptatzeko eskubidea eta gaitasuna, zein eskubide dituen adoptatutako haurrak. Harrera familiak ere badaude. Ospitale publiko eta pribatuetan in vitro ernalketa teknikak egiten dira; obulu eta esperma donazioak egiten dira. Osasun sistematik kanpo emakume batek lagun baten esperma baliatzen badu haurdun gelditzeke, ez dago araututa. Dauden



HAURDUNALDI SUBROGATUA MUNDUAN

- Legezkoa: diru-truke eta altruismoz
- Legez arautu gabe
- Legezkoa: altruismoz besterik ez
- Legezkoa: bigarren maila arteko odol ahaidetasuna dutenak
- Debekatuta
- Arautu gabe / egoera zalantzakoa

Iturria: Wikipedia.



Espainia eta Frantzia

- Debehatuta dago.

Portugal

- Umetokia uzten duten emakumeek ez dute dirurik jasoko, gastuak salbu.
- Bikote heterosexualak baino ez.
- Emakumeak ezintasuna duela egiaztatu beharko du.

Erresuma Batua

- Subrogazio bidezko haurdunaldi komertziala debehatuta dago.
- Familia edo lagunen artean egin daiteke, altruismoz, gastuak ordainduta.
- Bikote heterosexualak eta homosexualak, pertsona bakarrak ez.
- Bikotekideetako batek Erresuma Batuan bizi behar du.

Errusia

- Legezkoa da, ordainsaririk gabe eta diru truke.
- Bikote heterosexualak, emakume bakarrak eta gizon bakarrak onartzen dira.
- Atzeritarrek eta bertakoek eskubide berak dituzte.

Ukraina

- Subrogazio komertziala onartuta dago.
- Atzeritarrek onartzen dituzte.
- Bikote heterosexual ezkonduak baino ez dira onartzen, eta gizonak material genetikoak jarri behar du.
- Emakumeak ezintasuna egiaztatu behar du.

Ameriketako Estatu Batuak

- Estatu batzuetan legezkoa da, beste batzuetan debehatuta dago eta beste batzuetan arautu gabe dago. Legezkoa den estatu guztietan ordezkapen bidezko haurdunaldia diru truke egitea onartzen da. Bikote kontratatzailearen eskubideak lehenesten dira.

Kanada

- Umetokia uzten duten emakumeek ez dute dirurik jasoko, gastuak salbu, eta kanadarra izan behar du.
- Bikoteak ez du zertan kanadarra izan.
- Kudeaketa osasun publikoaren bidez egiten da.

Mexiko

- 2015ean araudia aldatu zen, eta gaur egun bide honi eusteko modu bakarra da, mexikarra, bikote heterosexuala, eta antzutasun txosten klinikoa eskuratua izatea. Kudeaketa osoa klinika pribatueta eta ordainsarien truke egiten da.

India

- Legezkoa da subrogazio komertziala.
- Indiako bikote heterosexualentzat baino ez dago onartuta.

aukerentzat eta etorriko direnentzat lege aterkia beharrezkoa da.

Heteroaraua gaindituko ote da?

Mapa aspiko adibideak begiratu besterik ez dago. Ordezkapen bidezko ernalketa arautzeko modu asko daude. Estatu batzuetan bikote heterosexualak baino ez dira onartzen; beste batzuetan bikote heterosexualak eta homosexualak; beste batzuetan bateko eta besteko bikoteak, emakume bakarrak, eta gizon bakarrak. Heteroarauaz hitz egiteko eta berori gainditzeko aukera ematen du eztabaida honek. Ariketa bera egin liteke gainerako familia osaketa aukeretan; nork du adopzioarako eskubidea, nork obulu eta esperma donazioez baliatzeko aukera, eta abar.

Hemen ezin denez, atzerrira doa jendea

Euskal herritarrak Espainiako eta Frantziako estatuetako legeei lotuta daude. Legedi horiek diote debekatuta dagoe-la haurdunaldi subrogatua. Umetokia behar dutenak kanpora doaz. Hemen arautzearen aldekoek diote, debekuak

» Nazioarteko adibideak ikusita, oro har, tratua zenbat eta komertzialagoa izan eta zenbat eta bitartekaritza enpresa gehiago izan orduan eta eskubide gutxiago ditu haurdunak

atzerrira joatera behartzen duela jendea eta hainbat estatutan haurdunaren eta umearen eskubideak ez direla errespetatzen. Hemen diru irabazirik gabeko eta baldintza zorrotzetako sistema ezarriko balitz haurdunak eta umeak babestuko liratekeela diote. Beste kontu bat da Euskal Herriko eskaera guztiari erantzuteko adina emakume legokeen prest umetokia uzteko. Euskal Herrira urtean subrogazio bidez izandako 250 haur iristen dira. 2016an, Espainiako

Estatuan (47 milioi biztanle), 800dik gora pertsonak jo zuen atzerrira ordezkapen bidezko ernalketa egitera, eta Kanadan (35 milioi biztanle), era altruistat, urtero beste hainbeste emakumek eskaintzen du bere umetokia.

Bestalde, bai Frantziako Estatuak baita Espainiakoak ere, atzerrian jaiotako umeok erregistratzeko trabak ipini ditu atzo arte. Gaur egun, bi estatuek nolabait legeztatu dute eta haurrak erregistratzeko aukera ematen dute.

Alderaketak egitea saihestezina da

Ordezkapen bidezko ernalketaz eztabaibatzerakoan etengabe aipatzen da prostituzioa. Bietan emakumearen gorputza erabiltzen da. Prostituzioa legeztatzearen alde dagoenak subrogazio komertzialaren aldeko jarrera izan beharko al luke? Prostitutak bezala umetokia eskainiko dutenak aske al dira haien gorputzak nahieran erabiltzeko? Bata lana bada bestea zergatik ez da izango?

Erantzunak baino galderak egin ditugu artikuluan, gaiaren hari muturretako batzuk haizatu nahian, eztabaidarako baliagarri izango direlakoan. ■

Hemen da Wolfram Deuna!

Ekitaldi fisiko, kimiko, analogiko eta antologikoa

ZER: umorezko zientzia-hitzaldiak, dosi homeopatikoetan

NOIZ: azaroaren 9an, 19:30ean

NON: Zabalotegi aretoan, Bergara

GAINERA: Laboratoriumera bisita gidatua, 18:30ean, doan

ETA SORPRESA GEHIAGO!

Antolatzailea

elhuyar
Zientzia

Laguntzaileak



LABORATORIUM



IV. MENDEKO NANOTEKNOLOGIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Alexandria edo Erroma, 290-325 urte inguruan. Likurgoren kopa izeneko beirazko eta metalezko pieza berezia egin zuten, ziur aski Erromatar Inperioaren toki batean baino gehiagotan. Adituen ustez, kopa egiteko prozesuan hiru lan-tegik hartu zuten parte, eta beirazko blokea aurrez prestatuko zuten Palestinan edo Egipton. Beiran zizelkatuta, Likurgo trazarren erregea ageri da mahatsondo inguratua, eta Bako jainkoak eta haren bi jarraitzailek erregeari barre egiten diote; Bako gurtzeko ospakizunetan erabiltzeko sortu omen zuten.

Kaiola-kopa edo *diatretum* berezia da Likurgorena, osorik iritsi zaigun mota eta garai horretako bakarra. Baina berezitasun nagusia da beira dikroikoz egin da dagoela. Material bitxiari esker, argia aurrez aurre duenean, kopa berdexka eta opakoa da, baina atzetik argiztatuz gero, gorri-gorri ikusten da eta transluzidoa da, azaleko erresonantzia plasmonikoa izeneko efektuaren eraginez.

1990etik aurrera eta soilik transmisiozko mikroskopio elektronikoei esker ikusi ahal izan zuten ikerlariak zergatik egiten duen kopak efektu hori: beirak urrezko eta zilarrezko nanopartikulak ditu, 50 nanometro ingurukoak, hau da, gatz aleak baino mila aldiz txikiagoak. Eta partikula horiek koloide moduan sakabanatuta daude. Alegia, kopa egin zuten artista/zientzialariak nanotekno-



THE BRITISH MUSEUM

logia erabili zuten, nanoteknologia zer den jakin gabe ere.

Egun, horrelako beira dikroikoa egiteak prozesu neurtu eta arduratsua eskatzen du. Baina IV. mendean zenbateraino kontrolatzen eta ulertzen zuten prozesu hori?

Zenbaiten ustez, halabeharrez lortu zuten efektua, urre eta zilar hautsak beira ezustean kutsatu zenean. Eta litekeena da egileek ez jakitea beirak, zilarraz gain, urrea zeukala, zilar erromatarrek urre zati txikiak izaten baitzituen maiz.

Baina, Likurgoren kopa beira dikroikozko pieza erromatar oso bakarra izanagatik, garai bereko horrelako beira zati gehiago ere aurkitu dira, koloreen aldea hain nabarmena eta ikusgarria ez

Likurgoren kopa Erromatar Inperioan egin zuten III. mendearen amaieran edo IV.aren hasieran.

Beira dikroikoaren eraginez, argia aurrean duenean kopa berde ikusten da, eta atzean duenean, aldiz, gorri.

bada ere. Ondorioz, prozesua neurri batean kontrolatzen zutela pentsatu behar da, eta behin eta berriro errepikatzeke gai zirela.

Ez zekitena da hamazazpi mende georago kopa inspirazio iturri izango zela nanoplasmoien ikerketan eta teknologia horrek, besteak beste, haurduntza probak egitea, gaixotasunak diagnostikatzea eta arrisku biologikoak identifikatzea ahalbidetuko zuela. ■



Faraoia etxe handi bat da

Per-aa hitzak “etxe handia” esan nahi du egiptoeraz. Faraoia, jakina, etxe handi batean bizi zen, eta haren jauregia izendatuz azaltzen da hitza dinastia zaharrenetako idatzietan. *Per-aa* hura *par’oh* bihurtu zen hebreeraz, eta *pharao* grekoz. Hortik dator faraoi hitza, baina Egiptoko erregea izendatzen du, ez ha-

ren etxea. Gaur egun Egipton ere *per-aa* esaten diote faraoiari, baina erabilera nahiko “berria” da. Egiptoar eskribek *nesu* (errege), *neb* (jaun) edo *hemef* (maiestate) hitzak erabili ohi zituzten. Amenhotep III.aren agintaldian, K.a. XIV. mendean erabili zuten lehenengoz *per-aa* agintari gorenaren izendatzeko. ■

Baratxuria Faltzesen



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Udaberrian jasoko ditugun uztak bu-ruan, ereintza eta landaketa lanetarako tarte polita da hotz handien aurreko hau. Besteak beste, baratxuria (*Allium sativum*) orain ereiten da. Baratxuriaren ugalketarako ez dugu hazirik erabiltzen, begia, atala, xixterra edo izterra baizik, baina hala ere erein esaten zaio, berez landatzea litzatekeenari. Edo landatu, landare forma osoa duena –sustrai, zuztar eta hosto– bakarrik landatzen da? Eta hazi izan edo ez, haziaren lana –sustrai, zuztarra eta hostoa eman– egiten duen guztiari erein esaten zaio?

Hemendik aurrera da berakazdia osatzeko sasoia, ahal izanez gero ilbeheran. Berdetan edo freskotan, baratxuri berri edo berakatzxo modura jatekoa orain hasi eta udaberrira arte erein daiteke. Erein eta hiru bat hilabeteen baratxuri berria, hostajea bakarrik denez, jateko moduan da. Burutzeko sei hilabetetik gora behar du.

Burutarako jartzen dena, aldiz, neguaren aurretik erein behar da; neguko hotzak buru hori sortzen lagunduko dio. Begira bestela baratxuri onenak non egiten diren, toki hotzetan. Euskal Herrian



NINO BARBIERI

ezaguna da Faltzesko baratxuria, eta han hotz ederra egiten du: abenduan, urtarrilean eta otsailean batezbesteko temperatura ez da 7 °C-ra iristen.

Faltzesen baratxuri eguna ospatzen dute udaren sarrera oro. Ehunka urte daramate bertakoek baratxuria lantzen. Itxuraz, XVII. mendeaz geroztik. Orduan elizari eta markesari ohiko nekazaritza mozkinengatik hamarrenak ordaindu behar zizkieten; jendilaje hori mantentzeagatik laboreak, barazkiak edota lekaleak egitea garesti ateratzen zitzairen, eta ekoizpen berri bat, ordainpekoa ez zen bat sartu zuten:

Toki hotzetan egiten dira baratxuri onenak.

baratxuria. Ederki ematen zuela jabetu eta hari heldu zioten.

Baratxuria guk ederki jaten dugu, baina animalia gehienek ezin dute usaindu ere egin. Horrexegatik intsektizida modura erabiltzen da. Ur pixka batean bi baratxuri atal irabiatu txiki-txiki egin arte. Iragazi eta bost litro ur osatu horrekin. Ihinztigailu batekin intsektuak busti, edo haien erasotik libratu nahi ditugun landareak. Orkatzak, untxiak, erbiak eta abar ere uxatzen ditu. ■

Basherri
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK *sarea*

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!





LURRAMA

Baserriko nekazaritza iraunkorraren topagunea Miarritzen



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIAK: LURRAMA.ORG

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen proiektua da Lurrama, baserriko laborantza iraunkorraren alde urtero antolatzen den festa. 12. edizioa izanen da aurtengoa, eta azaroaren 10etik 12ra bitartean ospatuko dute Miarritzen (Lapurdi), Iratiko erakustazokan. Asteburu osorako egitaraua prest dute beste behin antolatzaileek, nekazarien, herritarren nahiz agente politikoen inplikazioa eta parte hartzea bultzatzeko helburuarekin.

Herri nekazaritzaren alde, jaigiroan

Nekazaritza iraunkorraren aldeko apustua egin dute Lurraman parte hartzen duten ekoizleek, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen filosofiarekin bat eginik: tokiko garapena bultzatzea, ekoizteko eta saltzeko sare kolektiboak erabiltzea, produkzio baldintzak eta moduak argi azaltzea, ekoizpenerako sasoia eta natura errespetatuz lan egitea, tratamendu gutxi erabiliz eta produkzioen aniztasuna bultzatuz. Horiek dira, besteren artean, Lurraman parte hartzen duten nekazarien konpromisoak.

Ipar Euskal Herriko 50 ekoizle inguruk hartzen dute parte Lurramako azokan. Ezinezkoa izango litzateke ekimena aurrera ateratzea, ordea, bolondres lanean diharduten 600 laguntzaile ingururen inplikaziorik gabe. Herritarren eta laborarien elkarlanaren emaitza da Lurrama.

Azoka baino zerbait gehiago

Euskal Herrian ezezik, Frantziako Estatuan ere erreferentzialtasuna irabazi du Lurramak azken urteetan, eta 2010eko edizioaz geroztik lurralde edo eskualde gonbidatu bat izaten dute. Aurtengoan, Provence-Alpes-Côte d'Azureko Confédération Paysanne sindikatuko laborariak izanen dira Miarritzen, beraien abere eta produktuekin.

Bestelako hamaika ekitaldi ere izanen dira festibalean: etxaldeetako abereen eta lanen erakusketak, hitzaldiak, haurrentzako ekimenak, lehiaketak, produktu dastaketak, mahai inguruak, film proiektzioak, kontzertuak... Lurramako eskaintzen artean, aipatzekoa da azken urteetan bertako sukaldeak hartu duen fama: kalitatezko, sasoiako eta tokiko ekoizpenekin prestatutako 3.000 otordu zerbitzatuko dituzte festibalean. Zer ikusia, ikasia eta entzunaz gain, zer dastatua ere izanen da Miarritzen goizetik hasi eta gauera arte. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Azaroak 4: Usurbil

11:00etan Potxoenea Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena, Jakoba Errekondo eta Antton Olariagaren eskutik.

Azaroak 5: Arrieta

9:00etan plazan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta azokan kontsultategia.

Azaroak 11: Ormaiztegi

11:00etan Baratze Parkean ibilaldia eta kontsultategia.

Azaroak 15: Gasteiz

18:00etan Olarizuko parketxean *Altza Porru* komikihitzaldia Jakoba Errekondo eta marrazkilariekin.

Azaroak 23: Deba

18:30ean Hazitik Ekodendan, *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 28: Idiazabal

Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

ARGIAREN 2018KO EGUTEGIA

1

Egunero orri bat kendu eta sorpresaz hartuko duzun jakingaia

Eguna hasteko modu ederra da, askorentzat, ARGIAren egutegiari orria erauztea, eta egunaren zenbakiarekin batera errepasatzea eguzkiaren, ilargiaren eta itsasoaren gorabeherak eta izendegia. Orriari buelta emanda, eremu hauetako edukiak ekarriko dizkigu 2018an atzeko aldeak, batzuk umoretik, beste batzuk jolasetik, serioagoak hurrenak...: baratzea, hizkuntza gutxituak, kirola, feminismoa, hezkuntza edo ingurumena, besteak beste, eta astekariko *Denboraren Makina* edo *Beranduegi* ataletatik aukeratutako hainbat pasarte ere bai. Horrekin batera, Euskal Herriaren historiako hainbat pegatina jarri ditugu erakusgai, sare sozialetan arrantzatutako ipuin laburrak...



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARGIA

www.argia.eus

#txikitikeragiten
#ArgiaJendea
#indartudezagunindartzengaituena
#egunekopozak

Azaroko sariak

1



ARGIAren 2018ko egutegia
2 ale

2




Korrontzi dantzan CD, DVD eta liburuxka
2 ale

3



Mugarik Gaberen Euskal Herriko kolektibotasunean eraikitik
2 liburu

4



Alain Mirandaren Txingudi argazki liburua
2 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Kazetaritzaren independentzia babes dezagun autoritarismotik

Espainiako Gobernuak, PSOE eta Ciudadanosen babesarekin, Kataluniako instituzio publikoen kontrola bereganatzeko mehatxua egin du. Tartean, TV3, Catalunya Ràdio eta Agència Catalana de Notícies (ACN) hedabideen funtzio publikoa deuseztatu eta kontrol politikoa ezarri nahi diete. Euskaldunon Egunkariaren bortxazko itxieratik hona, Espainiako erresuman adierazpen, informazio eta prentsa askatasunaren aurkako erasorik gordinena da.

Euskaraz, galegoz, katalanez, aragoieraz... hizkuntza gutxituren batean lan egin duen hedabide orok sufritu du, maila batean edo bestean, Espainiako nazionalismo baztertzaileraren presio edo oztoporik. Garaian garaiko erregimenaren interesekin bat egiten ez duen jardun periodistikoaren aurkako presio eta erasoak ez dira berriak. Euskal Herrian, kazetaritza konprometitua egiteak oso prezio handia izan du ehunka lagunentzat; Egin, Egin Irratia, Ardi Beltza, Kalegorrian, Euskaldunon Egunkaria, Gaztesarea, Apurto.org edo Ateak Ireki-ko kide eta langileak testigu.

Orain, Kataluniako hedabide publikoak interbenitzea justifikatuko lukeen kontakizuna sortzeari ekin diote. Katalanez funtzionatu eta Kataluniako begirada duten kate publikoak. Urtetan erakutsitako profesionaltasunagatik lortu dute Estatuko beste edozein hedabide publikok lortu ez duena: gizartean, ezkerretik eskuinera, askotariko sektoreen oniritzia eta errespetua. Rara avis bat, tokian tokiko agente politikoaren prentsa-bulego izatera murriztu diren hedabide publikoen itsasoan. Erreferente dira kalitatezko albistegien eta entretenimenduaren arloan.

TeleMadrid-en manipulazioa aztertu dute Europako parlamentuan, Valentziako Irrati eta Telebista publikoa itxirazi zuten ustelkeria kasuek eragindako zor ekonomiko neurrigabekoengatik, RTVEko albistegietako kontseiluaren eta langileen protestak etengabeak dira zentsura eta dirigismoa salatuz. Baina Espainiako gobernuak jo-puntuaren dituen hedabideak dira Katalunian, 7 urtez jarraian, ikusienak izan direnak. Salbuespenezko garai hauetan, datu hau

kontuan izan gabe ezin da ulertu prentsa askatasuna bahitzeko Espainiako gobernuaren saiakera.

Kazetaritzaren independentzia babes-teko garaia da; Kataluniako hedabide publikoei, kazetariei eta, oro har, herritarrei elkartasuna adierazteko egunak. Baina, guregatik ere egiten dugu. Euskal herritarrok ere, demokratikoki eta bide baketsuak erabiliz, noizbait, gure etorkizuna erabakitzen helden bagara, aurrean zer izango dugun erakutsi diolako mundu osoari Espainiako erregimenak.

Botere ekonomiko eta politikoarekiko morrontzarik gabekoa da kazetaritza zintzo bakarra. Horregatik, txalotzeko da TV3, Catalunya Radio eta ACNko langileen erantzuna: ez dute onartuko Espainiako Gobernuak inposatutako zuzendarien agindurik, herritarren, instituzioen eta hedabideotako langileen iritzia eta nahiaren aurkakoa delako.

Mozal Legearen mehatxu eta isunen aurrean esandakoa berriz diogu orain ARGIAko kideok: jarrai dezagun informatzen, hemen eta Katalunian, inori baime-nik eskatu gabe. *Estem amb vosaltres.* ■

Itziar Navarro:

“Bertsolariak lortzen badu hitzen arabera doinua moldatzea, sorpresa bikoitza lortzen du”

Gogoratzen grabazio zaharretako bertsolarien kantaera berezi hura? Zerk eragin du hainbeste aldatzea bi belaunalditan? Itziar Navarrok eman ditu hainbat erantzun, *Oiartzungo bertsolarien kantaera XX. mendearen erditik hona* ikerlanean. Mintzola Fundazioaren iazko Laboa beka eskuratu zuen lan honek batu ditu bere bi zaletasunak: Kortxoenea Gaztetxean ekin zion taldean astero bertsotan egiteari. Bolada batean Egiako eta Añorgako bertso eskoletara joan izan zen “intermitente”. Bertso asko idazten du. Bitartean, Musiken egin zituen gitarra ikasketak eta Musikologia Kultural masterra Göttingenen (Alemania) egin ostean, zazpi hilabete eman zituen Grezian TEI Epirus-eko Musika Tradizionaleko departamentuan.



Estixu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Kantaera honela definitzen du Itziar Navarrok: “Kantatzean hotsak eta denbora kudeatzeko modua, bat-batean doinua moldatzeko era”. Kantaerak bertso-tan funtzio oso garrantzitsua du: “Hitzetara adierazkortasun handiagoa ematea”. Horregatik, Navarrok proposatzen duena ez da bertsolariak kantari baten moduan trebatzea, baizik, “kantaeraren baliabideez kontziente izanik gehiago baliatu ahal izatea, kantakera lautik urrunduz”.

Zortzi parametro seinalatu ditu ikerlanean, kantaera ezaugarritzen dutenak: erritmoa, tempo, dinamikak, artikulazioa, apaindurak, intonazioa, tinbrea eta azentuazioa. Bere lanean aztertu du kantaera osatzen duten zortzi alderdi hauek nola baliatzen dituen garai bakoitzeko Oiartzungo sei bertsolari hauetako bakoitzak (44. orrian dituzue bertsolari horiek). Eta bilakaera nabarmena dela azaldu digu: zaharrenek apaindura

asko erabiltzen zituzten, bibratoa ere bai eta ahotsa gaur egun hain ohituak ez gauden tinbreekin proiektatzen zuten. Mikrofonoa erabiltzeak ekarri du baliabide horietako askok zentzua galtzea, baina badira bizimoduan aldaketa gehiago ere kantaera aldatzea ekarri dutenak. Hala ere, bertsolarien artean kantaera aniztasun handia dagoela azpimarratu du: “Unai Agirreri entzuten dizkiot apaindura batzuk, Jexux Mari Irazuri ere... hori gustu kontua da. Zer entzun duten, zer gustatzen zaien eta zer erabiltzen duten oraindik. Bibratoa Maialen Arzallusek eta Aimar Karrikak darabilte, adibidez”.

Elizako organora egokitutako belarriak

Badira intonatzeko moduak, pianoaren tekletatik kanpo. “Intonazio tenperatua” deitzen zaio pianoko tekletan ezagutzen dugun horri: “Mendebaldeko sistema europarraren barruan tonu erdiak eta tonuak daude. Baina hori eraikitakoa da, hartu zuten zortziduna eta banatu zuten bitarte berdinetan, horrela eginda transportagarria zelako musika: jo de-

zakegu do-n, gero re-n... jo genezakeen piano berarekin tonu guztietan. Horrek bere prezioa du: ahotsarekin egiten dituzunean tarteko hotsak, talka egiten du tenperazioarekin”. Bach-ez geroztik joan zen zabaltzen intonazio tenperatua: “Inposatzen ere bai; elizak funtzio tenperatzailea izan du nahita edo nahi gabe, organoarekin ari bazara astero... *A capella* kantatuta eta herri musikarekin eutsi ahal zaio intonazio ez tenperatuari. Ondoren, irratiak ekarri digu masiboki tenperazioa”. Globalizazioak kanal batzuen bidez funtzionatzen duela oroitarazi digu Navarrok: “Ez zaigu etorri Senegalgo kantaera, ez Indonesiako. Etorri zaizkigu AEB, Frantzia...”. Ipar Euskal Herrian intonazio ez tenperatua erabiltzen da oraindik ere, baina Hegoaldean belarria ia erabat egin zaigu tenperatura: “Orain erdibideko hotsen bat egiten baduzu, agian dagoeneko desafinazioa da, ez da sistema hori belarrian duzunik eta erreproduzitu egiten duzunik; nork entzun ditu intonatzeko bitarte horiek modu intentsiboan? Agian doinuren bat, Xalbadorren grabazioen batetik ikasi baduzu, tokeren bat



geratuko zitzaizun. Baina orokorrean hots horiek ez ditugu entzuten ez barneratzen”.

Nolako bizimodua, halako kantaera

“Elizan kantatzen ikasi zuten belaunaldi askok, asteroko gune hori galdu zen, eta etxean ere ez da hainbeste kantatzen. Garai batean lan-bileretan ere kantatzen zuten”. Jendarte aldaketak musika ulertzeko modua bera aldatu duela kontatu digu Navarrok: “Lehen musika egiten zenuen zerbait zen, eta ez jaritzen zenuen zerbait. Eta kantua lantzen

da kantatuz, ez entzunez. Zenbat doinu dakizkizun ez da zenbat doinu entzun dituzun eta gutxi gora behera tarareatu ditzakezun edo ezagunak zaizkizun. Doinua kantatzeko gai zarela esan nahi du doinua jakiteak. Esperientziatik dator ezagutza”. Egun kantatzeko beste gune batzuk ditugu: musika eskola, korua, bertso eskola... “Horietara bazoaz eta pila bat kantatzen baduzu, landuko duzu. Baina orokorrean kantua atzerakada eman da, Joanito Dorronsorok ere dioen moduan. Zenbat eta gehiago aritu orduan eta gehiago ezagutzen

» “Agian, belarrira oso ongi ematen diguten bertsoek lortzen dute doinua eta esaldien azentuak parean etortzea”

» “Esperimentazioa da bidea, bertso eskolan beste gauzak lantzen diren bezala, kantaera ere mahai gainean jartzea”

» “Gakoa izan daiteke doinu batzuetan zentratzea, bertsolariak ikus dezan ea noraino iristeko gai den doinu horietan”

duzu zure ahotsa, baliabide gehiago garatzen dituzu”.

Ikusi dugu mediazioak (irratiek, CDek...) nola eragin zuten gure belarriak intonazio tenperatura heztean. Baina hori baino gauza gehiago ere eragin zituen: “Mediazioak, batez ere irratia, ekarri digu lehenago entzuten ez genituen soinu pila ekartzea, soinu horiek grabatuta entzutea, eta ez dakit kontziente garen grabatutako soinuak tratatuta daudela: artifizialki erregular-tasun batera bultzatutako erritmoan grabatzen dira kantak, ahotsak hainbat filtrotatik pasatzen dituzte, tratatuak dira desafinatu ez dezaten... beraz, grabazioak entzundakoan, imitatzen ari zara, nahi gabe, erreala ez den zerbait. Mediazioaren alde larriena da ez garelako kontziente tartean dagoela”.

Kontatu digu doinuak ikasteko prozesuak eragin handia duela emaitzan kontatu digu: “Lehen plazan entzuten zuten doinu bat, eta norbera saiatzen zen etxean-edo doinu hura erreproduzitzen, eta noski, bariazio handiak egiten ziren. Orain grabaziotik ikasita, doinu bakoitza era batera da eta gutxiago ba-

riatzen da. Agian segurtasun kontua ere bada, bertsotan inprobisatu behar duenak sentitu dezake 'behintzat doinuari eusten badiot...'. Doinuarekin bat-batean jolasteko abilitadea behar da. Lexotik, adibidez, beti kantatzen du doinu beretan, baina doinu gutxi horiek nola menperatzen dituen! Ez du inoiz gaizki kantatuko doinu horietan eta bariatzen du izugarri, denborarekin jolasten du".

Doinu berriak edo doinu zaharrak beti berri?

Galdera pausatu du Navarrok: "Agian fokua jarri da doinu berriak ateratzeko ahaleginean, eta txapelketar doinu berri bat ateratzeko joera badago. Gakoa izan daiteke doinu batzuetan zentratzea, bertsolariak ikus dezan ea noraino iristeko gai den doinu horietan. Baina ez dakit entzuleek preziatuko duten aha-lerin hori, gaur egun doinu eskakizuna oso altua baita. Maiz aldatu ezean, aspertzen gara doinu bera entzunaz". Aditu batzuen hitzetan, kantari batek doinuari bizia emateko eta ahozkotasunaren ezaugarriak txertatzeko, urtetan kantatu behar du: "Bertsolariak doinu bat hartzen badu eta hiru urtera nazkatu bada doinuarekin, edo modaz pasa bada, ez dakit zenbateraino ondu ahal izan duen. Adibidez, hitz zehatz batzuk esateko lortzen badu doinuaren aldaera batekin indarra ematea, irabazi egiten du: bi sorpresak batera doazelako, hitzezkoa eta doinuaren aldaera". Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" jarri du adibidetzat, berak aztertutakoen artean, eta egungoa izanik, hori egiteko gaitasuna duelako.

Hitzen musika eta doinua batera doazenean

"Hizkuntzalariekin prosodia ikerketa egin beharko genuke" bota du Navarrok: "Alegia, hitz jarioaren musikaltasuna aztertu beharko genuke. Nahiz eta euskarak ez omen duen azenturik, euskarak azentu malgua badu, mugikorra, mintza katearen barruan esaten dugunaren arabera, azentuatzen dugu gauza bat edo bestea. Iruditzen zait doinu zehatz batean, hitzen ordena era batera hobe geratzen dela beste ordena batean baino, azentuei lotuta. Agian, belarrira oso ongi ematen diguten bertsok lortzen dute doinua eta esaldien azentuak parean etortzea. Gaitasun hori bertsolariak bere egitea lortzen badute, senez edo egitera iristen badira, izugarria da".



Jose Joakin Mitxelena Agirrezabala (1924)

Kantari ona. Bere bi ezaugarri dira proiektzioa eta presentzia; handia izateaz gain, kantatzeko ere ahoa asko zabaltzen zuen... eta izugarri proiektatzen zuen ahotsa, bibrato indartsuz. Grupetoak eta beste figurak automatikoki egiten ditu, beste inork baino gehiago.



Jose Luis Lekuona Garaia "Lexoti II" (1925)

Gorputz, tinbre berezia du bere ahotsak. Oro har azkar kantatzen zuen, eta grabazio askotan nabari zaio eztarria ez zuela ongi.



Koxme Lizaso Lekuona (1937)

Nabari da garai hartako kantariak entzuten zituela. Askoz borobilago, motelago eta elegante kantatzen du, kantarien estetika hartzen du. Aztertu dudana corpusean behintzat, Koxme Lizaso da, Alaia Martinekin batera, polikien kantatzen duena.



Joanito Mitxelena Andueza (1953)

Parametro batzuei erreparatuta, zaharren antzeko kantaera du, baina mikrofonoagatik edo, hainbeste proiektatu gabe. Ahots suabeagoa du. Denerako moldatzen den kantaera du, tabernarako, txapelketarako eta jaialdietarako.



Arkaitz Oiartzabal Agirre "Xamoa" (1985)

Bizi kantatzen du, bizkor. Apenas erabiltzen duen apaindurarik, baina doinuarekin jolasten du, aldaerak egiten ditu... bertsolari familiakoa izateak azaldu lezake hori.



Alaia Martin Etxebeste (1987)

Tinbrearekin jolasten du. Esaten ari denaren arabera jaisten du ozentasuna, aldatzen du ahots kolorea... Hitzen artean etenak egiten ditu, atsedanak, adierazkortasuna irabaziz. Bi ezaugarri horiek bereizgarri ditu.

Horretarako ere, beharbada, doinu gutxi eta maiz errepikatzea komeni: "Doinu bat oso landua duzunean, agian hobeto ezkontzen dituzu hitzak. Eta doinua berria denean, bertsolaria ari da silabaz silaba metrika zaintzen, eta agian ez zaio aterako hitzen hautaketa soinu aldetik hain egoki egitea".

Berto kantaera lantzeko eskolarik onena

Navarriori galdetu diogu bertsolariek nola landu dezaketen kantu gaitasuna: "Ez dut sinisten kantu eskolara joatea denik irtenbidea. Esperimentazioa da bidea, bertso eskolan beste gauzak lantzen diren bezala, kantaera ere mahai gainean jartzea; eta bertsolariek lan asko egiten dute etxean, bada horretaz ere hausnartzea: etxean nola lantzen dut bertsoa? Kantatzen dut, edo idatziz? Nire aholkua da kantatzea, kantatu ahal den guztia, eta kantatu denetik".

Entzuleengan dago soinua

Kantaera mundu oso bat bada, entzuten duguna da beste hainbesteko mundua: "Irratitik, telebistatik edo zuzenean bertso saioan entzun, oso ezberdina da. Ahotsa komunikabideetatik barrena pasatzerakoan, bere ertz guztiak ez ditugu entzuten, ahotsaren presentzia osoa ez dugu entzuten. Zuzenekoak beti ematen du informazio gehiago. Eta bertso saioan bertan ere, mikrofonoarekin jasotzen dugun ahotsa dagoeneko aldatuta dator. Eta non zauden eserita, horren arabera ere zure pertzepzioa aldatu egiten da... Norberaren pertzepzioa beti aldagai askoren menpe dago eta oso pertsonala da, hasieratik entzumena selektiboa da. Horregatik, entzuleek kantaera bakoitza nola pertzibitzen duten, zein gustatzen zaien eta zergatik, hori ere ikertzea ederra litzateke".

Jakin-minez pizten zaizkio Navarriori begiak, bertsoa eta soinuaren arteko loturez ari dela: "Aztertuko nuke saio mota bakoitzean nola kantatzen den, ez baita berdin kantatzen jaialdi batean edo txapelketan. Elkarrizketatu nahi ditut lehenbailehen aztertu ditudan Oiarzungo bertsolariak, ea kontzienteki moldatzen duten beren kantaera. Doinutegia nola erabiltzen duten, doinuak nola ikasten dituzten... bertsolari batzuen kantakera intonazio ikuspegitik ere aztertu daiteke: Xalbador, Uztapide, Lasarte, Enbeita". ■

BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

LiburuTEKia VI. jardunaldiak

Diputazio Kalea, 7 - 2. solairua, areto nagusia
48008 Bilbo, Bizkaia - 944 608 24 87

» Zentzumenetarako Irakurketak

Data: Azaroak 14 eta 15

- Azaroaren 14an: Yolanda Arrieta, Jon Gómez, Adur Larrea
- Azaroaren 15ean: Yannick Vergara, Rakel Rodriguez

Ordua: 19:00

Hizkuntzak: Elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Doako sarrera, edukiera osatu arte (Foru Liburutegian sartu ahal izateko, NANA, pasaportea edota Liburutegiko txartela aurkeztu behar da sarreran)
- Berehalako itzulpen-zerbitzua egongo da.

» Letrak eta futbola (VIII)

Jaialdi hauetan, topaketa, mahai inguru, hitzaldien bidez, kirolak literaturarekin duen harremana aztertuko da.

Data: Azaroak 20, 21, 27 eta 28

Azaroaren 27an euskarazko jarduera egongo da: Futbola eta Kultura, Jon Maia, Iratxe Fresno eta Juan Luis Zabalaekin

Ordua: 19:00

» Zine-foruma: Genero-bortizkeria eztabaidagai

Data: Azaroak 24

Ordua: 18:00

Hizkuntza: Elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Doako sarrera, edukiera osatu arte (Foru Liburutegian sartu ahal izateko, NANA, pasaportea edota Liburutegiko txartela aurkeztu behar da sarreran)

Rekalde Aretoa

Rekalde Zumarkalea, 30 - 48009 Bilbo, Bizkaia - 944 06 85 32

» Familiarentzako tailerra (elebiduna)

Data: Azaroak 11

Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara 4-11 urte bitartekoentzat heldu bat edo bi lagun dituztela

"Oroipenak sortzen" tailerretan gure gorputzekin sortutako aztarnak eratuko ditugu erakusketan ikusi ahal izango ditugun eskultura txikitan oinarrituta.

» 7m2 (elebiduna)

Data: Azaroak 18

- Ordutegia: 10:30etatik 11:45era, 3-6 urte
- Ordutegia: 12:00etatik 13:30era, 7-11 urte

Rekalde Aretoan, tailerrak antolatzen ditugu aldizkako erakusketei buruz. Hiru eta hamaika urte bitarteko haurrei zuzenduta daude, eta, horrela, era ludiko eta didaktikoan hurbiltzen dizkiegu arte garaikideko proposamenik berrienak.

Pelax

TALKA, DIDAKTIKA ETA KOMUNITATEA

Donostiako eszenan interesa duenak ezagutzen du Unai Pelayo, Pelax. Bakarlari bezala lan bat atera ostean 2015ean Cowboys Orkestrarekin lehen diskoa argitaratu zuen. Ordutik hamaika proiektu eta formatu ondu ditu, udan Telmo Trenor DJarekin lau kantaz osatutako EPa atera du, besteak beste. Joan den urriaren 15ean *Talkak eragiten du didaktika* (Balio Dute) lana aurkeztu du Le Bukowskin (Donostia). Andoni Olaetxea (Goragaleak, Zozo), Iker Vazquez (Blaka, Liher) eta Iñigo Ozaetarekin (Blaka, Nerabe) batera elkarrizketa interesgarria izan dugu, egia esateko moduei buruz Egian.



Xalba Ramirez

@xalbaram

ARGAZKIA: AMAIA OCA

Disko aurkezpena igande batean antolatu izanak beldurra eragiten zien, baina Le Bukowskin jotzea etxean jotzea zen, eta leporaino bete zen hilabeteetako lana entzun nahi zuten zaleekin. Kontzertu indartsuak ematera ohituta daude Pelaxekoak, eta hau ez zen gutxiagorako izan. *Estanpa*-rekin eta *Sua dela badio* kantekin eman zioten hasiera; indarra eta letra sakonekin, Pelaxen esentzia-rekin, alegia. *Arerio* izan zen hirugarren kanta eta areto osoa jarri zuen dantzari. Erritmo apurtuetan eta sampleetan oinarritua dirudien bateria zehatz eta zoroa, zuzenekoetarako ezinbestekoa bihurtuko den kanta dudarik gabe.

Lau musikariak lokatzetan ibilitakoak dira. Azken bi urteetan bakoitzak bere proiektuekin ehundik gora zuzeneko eskaini ditu eta esperientzia hori islatzen jakin dute lan berrian. Andoni Olaetxearen ustez, lehen bi diskoen artean dagoen aldea nabaria da: "Lehen Unairen bakarlari proiektua zen eta guk banda gehitzen genion. Orain Cowboysak desagertu dira eta talde bilakatu gara;

oinarriak bera izaten jarraitzen duen arren, noski".

Talka askoz ilunagoa da Cowboys baino. Rock'n'Rolletik eta blues klasikotik aldendu egiten da momentu askotan, eremu berriagoetara iritsiz baina oinarria galdu gabe. Denak ados daude Olaetxearen gitarrak eman diola disko osoari xarma berezi hori. Talde osoaren heldutasuna nabarmena da, hala ere. Vazquezek eta Ozaetak osatzen duten bikotea beste nonbait ikustea zaila da. Lehenak indarrez markatzen ditu kolpe guztiak, bigarrenak, larrua jotzen dio baxuari zuzenekoetan.

Iñaki Rifaterrak egindako diseinua barne, *Talkak osatzen du didaktika* osotasun bat da. "Titulua ekarri zenuenean ez zitzaidan batere gustatu -aitortu du Vazquezek- baina esaldiari bueltak eman ostean, izugarria iruditzen zait. Asko ikasi dut prozesu honetan izan ditugun kolpe guztiak, eta esaldi honi esker hobeto ulertzen dut garai hau". *Talka* kanta bera, taldekideei idatzi zien Pelayok, "pasa ditugun momentu zail guztiengatik".

Hala ere, Cowboysekin antzekotasunak baditu disko honek. *Habitus* eta *Lotailu*, adibidez, diskoaren arrazoien



sintesiak dira; *Dena delitua*-ren erritmo pisutsua aurreko diskoko *Zeuok*-ekin pareka daiteke eta *Traba*-ren riff dantzagarria lehengo laneko *Turbio*-rekin. *Sua dela badio* eta *Balio dute*-k himno izaera bera dutela esan daiteke. Intro eta outro bera dute bi diskoek ere, biei lotura emanez. "Gure influentzia handiena gara", diote barre artean.

Letrei dagokienez Pelayo bluesman bat da, dudarik ez dago. "Blues-ak zaurien beharrak ditu, eta soberan ditut" dio lehen diskoko kanta batek eta bigarren diskoan zauriak eta haserreak leku guztietatik ageri dira. Ozaetak ere argi ikusten du, "garai batean Euskal Herrian mezu zuzen eta esplizituak izan dira nagusi, eta orain arte egon da joera bat beste mota bateko mezuak garatzen saiatzeko. Baina ostia txarra ezin da makilatu, eta orain berriro ari gara itzultzen amorrutik abestera, barruan zein kanpoan gertatzen diren gauza txarrei abestera".

"Eszenatokira igotzea festa bat da guretzat. Nik beti jotzen dut irribarrez", aitortu du Vazquezek. Bukowskiko eszenatoki gainean ikusi zen Cowboysen ere bazuten izaera anarkikoa. Eneko Sierra eta Jon Agiriano nahi zutenean igotzen ziren saxo eta gitarrarekin laguntzera.



“Cowboysek horrela zen: bi bateria jo-tzaile, hiru gitarra, saxofoia... bakoitzak nahi zuena egiten zuen. Orain esan dai-teke pixka bat lasaitu eta kanteekin fide-lagoak izan nahi dugula”. Talde-komu-nitate filosofia horri jarraituz, diskoan aritu dira ere Beñat Antxustegi, Joseba B. Lenoir, Olatz Salvador, Lander Ganzo eta Xabier Viscay lagunak euren alea jartzen.

Lanari bi helburu soilik jarri dizkiote, “egia esatea eta zuzenekoetan defendatzea: hori da Rock’n’Rolla” dio Pelayok. “Ez dugu famatuak izan nahi, baina ezta ahanzturan erori ere. Izan ere, erreko-nozimendua lortzea zaila da Euskal Herrian, ez baduzu interes jakin batzuen arabera jokatzeko, behintzat. Baina gauzak aldatzen ari dira. Beste filosofia batekin hasi da geroz eta jende gehiago programatzen. Hala ere, ez da sinplea, ezin delako eszena bakar bezala ikusi Euskal Herria. Ez da berdina Gipuzkoa-ko *underground*-a, Arabakoa edo Ipar Euskal Herrikoa”.

Himnoak sortzen dituen musikaria da Pelayo. Izan ere, musika bi gauza dira: sentimendua eta komunitatea, eta kan-tek zentzua hartzen dute biak batera agertzen direnean –teknika bien arteko zubia baino ez da–. Bukowskira joandako

» **IÑIGO OZAETA:**

“Garai batean Euskal Herrian mezu zuzen eta esplizituak izan dira nagusi, eta orain arte egon da joera bat beste mota bateko mezuak garatzen saiatzeko. Baina ostia txarra ezin da makilatu”

» **UNAI PELAYO:**

“Ez dugu famatuak izan nahi, baina ezta ahanzturan erori nahi ere”

ikusleek zaletasuna baino zerbait gehiago konpartitzen dute; bizitzeko modu bat, auzoa eta hiria ulertzeko manera bat. Pelaxek horri abesten dio, eta hortik. Eta hor elkartu gaitu eta elkartuko gaitu, beste behin. “Abestiek balio dute, gauzak ez diren bezala kontatzeko”. ■

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



• **Imagine**

Asier Kidam magoa

Magia eta umorea uztartzen duen ikuskizuna
Azaroak 26, 19:00
Salburuko gizarte etxea
5 euro

• **Txotxongiloen itzal-antzerkia**

Zurrunka teatroa; lantegia

Txotxongiloak egin, itzalekin jolastu eta istorioak asmatu
Azaroak 27, 18:00
Aldabe gizarte etxea
Bazk./abon.: 1,5 euro
Ez bazk./no abon.: 2,5 euro

• **Liburutegiko sekretuak**

Ane Gebara, ipuin kontaketa

Azaroak 21, 18:00
Hegoalde gizarte etxea
1 euro

• **Literatura, euskara eta hirurok**

Juan Luis Zabalarekin solasean

Azaroak 15, 19:00
Aldabe gizarte etxea
Sarrera librea

Oihaneder euskararen etxea

Info+: www.oihaneder.eus

• **Short term 12**

Destin Daniel Creton,

2012, AEB Zinema jatorrizko bertsioan euskarazko azpiztituluekin
Azaroak 7, asteartea, 20:00
(Betolaza)

• **Esperantoa, Aitor Arana**

Hitz Adina Mintzo Hizkuntza

gutxituen zikloko hitzaldia
Azaroak 15, asteazkena, 19:00
(Ortuño)

• **Gasteiz DA!. Ahotsenea 10 urte**

Erakusketa

Azaroak 3-azaroak 19
(Jovellanos)

**Maite duzun
hura, euskaraz!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Begiak ireki eta



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga


Reno, Nevada, Ameriketako Estatu Batuak. Euskaldunon iruditerian hiri seinalatua: euskal kolonia garrantzitsua (zeren urrina duen, auskalo), artzain euskaldunaren omenezko monumentua (ados, ez dut txantxarekin jarraituko), are, Center for Basque Studies, euskara eta euskal ikasketak lantzeko ikerketa zentroa. Zilbor behaketa horretatik kanpora zer ordea? Ilun, ez behintzat Las Vegas bizi-lagunaren argirik. Galdetuko dizu *Ero hiria* ipuin bilduma honetako pertsonaia batek: “Zer egin daiteke Renon arratsaldeko bostetatik aurrera?”. Aurrerago erantzuteko beste ipuin batean beste batek: “Renon ez dun ezer gertatzen”.

Renon baitaude girotuta hamar ipuin hauetako bat eta bakoitza. Hamarrak irakurrita, ordea, kontxo, ezer ez baino zerbait gertatzen dela esan behar, eta zerbait asko: ez agian zaratots arranditsu artean, baina gehiago lurrazpiko dar-dar apenas atzeman-garri eta konstante batean. Emakume eta gizonen (eta are emakume eta emakumeen, eta gizon eta gizonen) arteko harremanak dira nagusi, harreman, nola deitu, batez ere afektiboak –“Flirteatzea da gaur egun gertatzen zaigun bide bakarra”-. Jatorri, kondizio, jaidura askotariko emakume eta gizonak, elkar ulertzera edo elkar ez-ulertzera edo gutxienez elkarrekin interaktuatzerako kon- denatuta daudenak. Mundu guztia biltzen da hartara orriotan, mundu txiki bat, esan dezagun munduaren zabala har lezakeen mikrokosmos bat. Lasai, euskaldunok ere

Ero hiria

JAVI CILLERO

Alberdania, 2006



Javier Cillero Goiriastuena idazle eta itzultzailea (Bilbo, 1961).



bagaude, zorionez dosi txikietan –“Euskaldunok ez gaituk santujale hutsak” esateko, adibidez; edota aberkide bat “immigraziokoek harrapatu eta etxera bidali ditek”-. Ero hiria, beraz, baina jende erabat normala aterpetzen duena bere baitan, osotoro arrunta, zu eta ni bezalakoa.

Taberna ugari (billar-mahai musika jotzeko oholtza, han-hor-hemen ageri diren hegazti eta piztien gorputz disekatuak), alkohol ugari (azenario-zukua ere bai, tarteka), zinema ugari (“Egungo heziketan hain da sakona Hollywooden eragina”), milurteko berriaren kariatara zalantza ugari. Horien artean gertatzen dira hemen gertatu beharrekoak. Eta hasieran egindako galderekin baino, geratuko nintzateke “Renora etorritz gero dena da posible”, “Renon egunak hogeita lau ordu baino gehiago ditu” bezalako baieztapenekin. “Begiak ireki eta gauza asko ikusiko dituk Renon”. Besterik ez bada, Javi Cilleroren eskutik. ■

» KONTZERTUA

OLBEren denboraldi mamitsua



Montse Auzmendi

Opera zaleontzat disfrutatzeko garaia iritsi da, OLBEren denboraldia urriaren 21ean hasi baita. Benetan zoriondu behar da OLBE bere 66. denboraldian, hainbeste urtetan kalitatea eta ilusioa mantentzeagatik. Titulu gehiago edo gutxiago, krisi ekonomikoen arabera askotan, ohiko gorenko mailari hortxe eutsi dute.

Aurtengo egitaraua bereziki gustagarria da. Errepertorioko lau titulu izango ditugu, operaren historiaren ibilbidea azaltzen dutenak: *Don Pasquale*, *Manon*, *Salome* eta *Norma*. Bestalde, gutxitan programatzen den Giuseppe Verdiren *I Masnadieri* operarekin jarraipena emango diote *Tutto Verdi* zikloari. Ziklo honen helburua da urteetan zehar Verdiren opera guztiak antzetztea. Izan ere, konpositorearen 28 operetatik, bakarrik hiru titulu gelditzen dira antzetzeteke, aurtengoa kontutan hartu gabe.

Esan bezala, bost opera hauekin lirikaren munduaren bilakaera erakutsiko da. Verdiren *I Masnadieri*-tik hasita, XX. mendeko Richard Strauss-en *Salome*-raino, Belliniren *Norma* lan erromantikoa tartean izanda.

Izarrak ere egongo dira aurtengo edizioan: Aquiles Machado tenore venezuelarra *I Masnadieri*-ren protagonista izango dugu; Carlos Chausson baxu handia disfrutatzeko aukera izango dugu *Don Pasquale*-ren emanaldietan; Celso Albelo tenorea protagonista gisa arituko da *Manon* operan; Emily Magee soprano estatubatuarra *Salome* izango da eta Anna Pirozzi eta Gregory Kunde gure artean izango ditugu *Norma* operaren bertsio gozagarria egiteko.

OLBEren 66. denboraldia

Aurtengo egitarauko lau titulu nagusi: *Don Pasquale*, *Manon*, *Salome* eta *Norma*.
Giuseppe Verdiren
I Masnadieri operarekin
jarraipena emango diote
Tutto Verdi zikloari

Fosoan, bestalde, batuta onenak izango ditugu: Miguel Ángel Gómez Martínez, Alain Guingal, Erik Nielsen eta Pietro Rizzo arituko dira Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoekin batera.

Halere, OLBEk ekintza gehiago prestatu ditu aurtengo ediziorako. Opera publiko berriei zabaldu nahi die, eta asmo honekin *Opera berri* programarekin jarraitzen dute, sarreren prezioa erdira jaitsez; bestalde, GAZTEAM programarekin 750 bazkide gazterengana iristeko helburua dute. Eta ezin dugu ahaztu ABAO-TXIKI denboraldia, umeei zuzendua. Aurten 13. edizioa izango da, eta honako tituluak izango ditu: *Toyshop*, *pampiñen mundo magikoa*, *azaroan*, *Gabonetako ipuin bat*, *urtarrilean*, *Dickensen ipuinean oinarrituta*, *Pedro eta otsoa*, *martxoan*, eta *Allegro Vivace*, denboraldia amaitzeko.

Beraz, opera asko eta ona. Gerturatu zaitezte. ■

Jules Massenet,
Giuseppe Verdi,
Richard Strauss eta
Gaetano Donizetti
dira OLBEren
errepertorioko
izen nagusiak.





Bilbo Arestirekin zorretan



Dabi Piedra

GABRIEL ARESTI ADISKIDEEN BEGIETAN MAHAI INGURUA

Urriaren 16an, Bilboko Bidebarrieta liburutegian. Mintzakideak: Karmelo Landa, Josu Torre eta Anjel Zelaieta.

“Gabriel Arestik ez du omenaldirik merezi” bota zuen Karmelo Landak, mahai-ingurua hasi eta berehala. Baiezta-pen sendo eta harrigarri horrek hurrengo ordu eta erdiko elkarrizketa atsegina piztu zuen, Gabriel Arestiren hiru lagun handiren artekoa. Han ziren Josu Torre eta Anjel Zelaieta, *Anaitasuna* aldizkariaren bidez Bilboko idazlea ezagutu zutenak. Karmelo Landa, bestetik, Arestiren obra sakonkien aztertu duenetako bat da. Bilbaopoesia zikloaren barruan antolatuta zuten Gabriel Arestiren Eguna Bilboko Bidebarrieta liburutegian. Asteguna izanagatik, bazen han jendea, orain dela 42 urte hildako idazlearen adiskideen esanak entzuteko prest.

Gauza bat, behintzat, garbi utzi zuten hiru solaskideek: idazlea baino gehiago izan zen Aresti, euskal kultura modu integralean ulertu zuen eta berau erdigunera ekartzen ahalegindu zen, euskal kultur sistema sortzea helburu.

Horretarako argitaletxea sortu zuen, antzezlanak idatzi, idazle gazteei bultzada eman... Landak azpimarratu zuenez: “Egoera goitik behera irauli nahi zuen, ikuspegi estrategikoa zuen”.

Horretarako lekurik onenean eta txarrean jaio zen, aldi berean: Bilbon. “Bilbo maite zuen, baina kritiko ere agertzen zen”, gogoratu zuen Landak. Hiriak arbuia egin zuen, eraso gogorak jasan zituen. Hil arteko azken egunak Ean pasa zituen Arestik, handik datoz urteroko Poesia Egunak. “Baina sistema bat ez da aldatzen Eatik”, adierazi zuen Landak, Bilbo modernoak Arestiri bizkarraren eman diola salatzeaz bat.

Horregatik, laster hasierako baieztapena aldatu zuen Landak: “Arestik merezi du, bai, omenaldia; baina Bilbok ez du merezi Gabriel Arestiren omenaldirik”. Josu Torrek hitza hartu zuen, kritikak baretu aldera: “Karmelo gogor etorri da, ni, aldiz, amultsu”. Makina bat

pasadizo gogoratu zituen Torrek, umorea galdu gabe: Arestik eta *Anaitasunak* zentsurarekin izandako gorabeherak, edo euskaldun kontserbadoreek zioten ezinikusia, adibidez. Ezagutu zuen egunetik bertatik, Arestik “lilura edo xarma” eragin ziola aitortu zuen Torrek.

Anjel Zelaietak ere atseginez gogoratu zituen aspaldiko kontuak. Arestiren kementa azpimarratu zuen, nortasun sendoa. “Behin, *Anaitasunaren* azken zenbakia jaso zuela esan zidan eta nik galdetu nion, ‘eta? Zer moduz?’. Berak erantzun, ‘flojo’. Zenbaki hori zentsuratu egin zuten gero eta hala ere berari flojo iruditu!”.

Bidebarrieta liburutegiko saioa bukatu baino lehen, Karmelo Landak ohartarazi zuen oraindik asko dagoela Gabriel Arestiren inguruan ikertzeko, oparoa izan baitzen sormenez eta ideiaz. Omenaldiak omenaldi, Landak ebatzi zuen Gabriel Arestik merezi duena “bere ikuspegia zentroan jartzea” dela. ■

Hitz gezidunak

GOGOA, OROIMENA LEKAIMEAK, SERORAK	↓	BOTIKA ERASO	↓	PERTSO- NAIAREN ABIZENA	 Dani Blanco	BEGIRUNE PERTSONAIA- REN IZENA	↓	BELE MOTA URTE OROZ, URTERO	↓	HEZTEA, HEZBIDEA LORE OSO USAINTSU	↓
KARRAN- TZAKO MENDIA DAUKA	→					AISE ZINEMA	→				
1.100, ERROMATAR ZENBAKIZ ZUBERERA	→			BILO, ULE ASIAKO HERRITAR		↓	LORE ZURI USAINTSU KILIKA	→			
TXAHAL OKELA SARRITAN	→				↓			ANTZA, FORMA ANTOLATU	→		
				HAURRAK, UMEAK EZEREZETIK SORTU, EGIN	→				↓	ZIRKO- NIOAREN IKURRA INOIZ	→
ASETZERA BEHARTU	BIZKI GAR	→				LITURGI OTOITZA JARRAITZAI- LEA	→				
	↓				↓			... EGIN, AGURTU ARAZO, GATAZKA	→		... CASTRO, KUBAKO PRE- SIDENTEA
OINARRIZKO EDARI ISPASTE- RREKO HONDARTZA			EROAN PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ)	→						TOKI HORRETAN GAROA, IRATZEA	→
			↓		ARABAKO UDALERRIA 40, ERROMATAR ZENBAKIZ	→				↓	ANPEREA HERRI HIZKERAN, ETA
URTEBETEKO TXAHAL MERKATARI, TRATUGILE	→				↓		AZALA KENDU ROENTGEN	→			↓
					↓				ZERBAITEN KANPOKO ALDE	→	

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

3	6							4
	2			1			6	9
		1	5	2				
			8		5			3
4			3		1			
				5	7	1		
5	9			6			3	
6							8	5

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Lepoak.
2. Iritzi, uste.
3. Zail, gogor.
4. Laborantza tresnak.
5. Hurrupa, tragoa.

Ebazpenak

[illegible]

5x5:

1. Samak. 2. Aburu.
3. Muger. 4. Areak.

5. Kurka.

L	V	A		I	R	V	L	U	J	T	V	T
U	I	O		Z		E	X	A	V	A	V	A
A		I	D	U	A	L	A	I	E	G	C	G
O	H		A	N	M	A	V	E	R	U		
S		L	E	O		Z		A	S	E	A	V
A	I	N	T	E	L		K	I	B	I		
Z	Z	A	K	N	I	S		Z	M	A	I	
E	T		I	K	A	L	H	A	T	X		
I	O	T		Z		I		C	M		D	U
Z	R	A	E					O	U			
N	E		D						A	K	M	O
H	E	A						F			G	

Debbie Bookchin. Natura gizartearen eredu



Ekologia sozialean aditua, bere aita Murray Bookchin ekologia sozialaren aitzindariaren *The Next Revolution* liburua argitaratu du. Kazetari lanetan ere ibilia, Bernie Sanders AEBetako politikariaren prentsa arduraduna izan da hiru urtez. Urrian Bilbon egindako Ekologia Sozialaren eta Udalgintza Libertarioaren II. jardunaldietan parte hartu zuen.

“Naturarekin dugun harreman mota gizarteko harremanen isla da”



Lukas Barandiaran San Roman

@barandiluk

ARGAZIAK: ARITZ LOIOLA

Aitareneko memoria

“Ekologia sozialean murgildu nintzen jaio nintzenetik. Gurasoak oso aktiboak eta erradikalak ziren politikoki. Ideia truke sutsuak izaten ziren nire etxean, beraz bizitza osoan inguratu naute ekologia sozialaren ideiek. Nire aita duela hamaika urte hil zen, ni kazetaria nintzenean, eta pentsatu nuen garrantzitsuagoa zela haren ideiak zabaltzen jarraitzea”.

Murray Bookchinek, zure aitak, instituzioen eta ingurumenaren krisiaz hitz egin zuen 80ko hamarkadan. Nola eboluzionatu du krisi horrek?

Okerrera. Neoliberalismoa denera zabaldu da, eta demokraziaren krisia ere bizi dugu, osagaiz osagai desagertzen ari da. Konfiantza galera horrek oinarritzko arrazoi bat du: instituzio horiek ez dituzte jendearen beharrianak asetzen. Birmoldatu behar ditugu, baina horretarako ez da nahikoa politikari aurrerakoiak bozkatzeara: estatu mailako instituzioen boterea maila lokalera ekarri behar dugu. Komunitateek kontrolatu behar dituzte beren erabakiak, batzar eta aurrez aurreko elkarrizketen bidez. Bestalde, ingurumena sufritzen ari da, guk ustiatu dezakegun zerbait bezala tratatzen dugun heinean. Nire aitak atera zuen ondorioetako bat zen ezin dugula ingurumen krisia konpondu harreman sozialen krisia konpondu gabe, menperatze eta hierarkia harremanak gainditu gabe.

Nola lotzen dira bi krisi horiek?

Ingurumen krisiaren arrazoia kapitalismoaren hazi-ala-hil etika da; ba-

liabideak ustiatzen, ekoizten eta kontsumitzen jarraitu behar du. Estatuak kapitalismoa sostengatzeko existitzen dira, eta estatuek bermatzen dute jendeak bere ideiak adierazteko ahalmen gutxi edukitzea. Hautetsontziak jendea ahaldundu dadin ekiditeko oztopo gaindiezinak dira.

Natura gizakiarentzat eredu dela diozue.

Eredu ekologikoa gizarte eredu egokia litzakeela zioen nire aitak. Sistema ekologikoak egonkorragoak dira aniztasuna dutenean, osagarritasun-harremanek osatzen dituztenean. Gizakien sistemetarako ere egokia da eredu hori, hobeto funtzionatzen dute. Aniztasunean batasuna: jendearen askotariko dohain eta beharrak elkarrekin jotzen hasten direnean oreka sortzen da.

Printzipio horiek gizartera eramatea proposatzen duzue. Nola?

Politika garden eta ez hierarkikoak garatu behar ditugu, eta printzipio horiek ere ekologiari datoz. Gizartearen paradigmak ezin du izan ekonomikoa. Zein da gizakiaren ondasun nagusia? Ziur ez



"Boterea beti egongo dela ulertu behar dugu, gakoa da nork edukiko duen. Botere guztia hartzen duen eredu sobietikoaren eta botere orori uko egiten dion eredu anarkistaren artean bada hirugarren aukera bat: Rojavan (Kurdistan), Chiapasen eta beste udalgintza mugimendu erradikal batzuetan gertatzen ari dena".

dela ustiaketa edo neurrigabeko garaipena. Askatasuna eta sormena bultzatzen dituen gizartea behar dugu. Esaterako, jendeak lehoia izan du naturako izaki nagusitzat, gizakien hierarkiaren errepresentazioa egiten ari da, hierarkia naturalizatzen ari da, eta naturan ez dago hierarkiarik. Dena elkarrekin konektatuta dago ekosistema osasuntsuetan, eta gizartean ere hierarkia eta menperatzeak alboratu behar ditugu.

Zein lotura eduki behar du gizakiak naturarekin?

Naturarekiko harremana eraldatzeko guztiz berrantolatatu behar dugu gizartea. Egun naturarekin dugun harreman mota gure gizarteko harremanen isla besterik ez da. Nire aitak ekologia oinarri politiko gisa aldarrikatzen zuenean, ez zen mugatzen baso baten mozketa-aren edo kutsaduraren kontra protestatzera; inguruarekin dugun harremana kapitalismoak zeharkatzen du alderik alde. Berdintasunez jokatu behar dugula aldarrikatuz, ingurumenarekin ere berdintasunez jokatu behar dugula aldarrikatu zuen.

Zein ekonomia edo teknologia mota proposatzen duzue?

Ez dut uste teknologiak bere horretan balio onik edo txarrik daukanik, gizakiak modu on batean edo txar batean erabil dezake. Zertarako erabiliko dugu teknologia, natura eta gizakiak ustiatzeko ala gure bizitzak hobetzeko? Bestalde, ezinbestekoa da ekonomia morala, lurrraren eta energiaren erabilera ekologikoan oinarritutakoa. Baina ekonomia hori lortzeko gizarte morala eduki behar da, eta horretarako ezinbestekoa da pertsonak bere komunitateko erabakietan parte-hartzaile aktiboak izatea. Ekonomia mota hori ezinbestekoa da udalgintza edo komunagintza libertarioan.

Gizarte antolaketa eredu zehatz bat proposatzen duzue?

Boterea beti egongo dela ulertu behar dugu, baina gakoa da botere hori nork edukiko duen. Goi-mandatarien bulegoetan egongo da boterea, nahiz eta haiek esan aurrerakoia direla? Erantzun bakarra da boterea berriz ere maila lokalera ekartzea. Botere guztia hartzen duen eredu sobietikoaren eta botere orori uko egiten dion

eredu anarkistaren artean bada hirugarren aukera bat. Hori da Rojavan (Kurdistan), Chiapasen eta beste udalgintza mugimendu erradikal batzuetan gertatzen ari dena. Maila lokaleko proiektuak abiaraziz jendeak beren bizitzan gaineko boterea eskuratzen du. Ezinbestekoa da etorkizun demokratikoago bat nahi badugu.

Ba al duzu antolaketa mota hori erabiltzen duen adibide zehatzik?

Zirrarragarria izan da Rojavan nire aitaren ideiak indarrean jarri dituztela ikustea. Abdullah Öcalanek gidatuta garatu dute politika hori, eta aitak eragin handia eduki zuen harengan. Konfederalismo demokratiko deitu duten ideologiaren barruan, auzo, herri eta komunitate bakoitzak bere gobernua aukeratzen du, eta horiek federatuz eskualdeko gobernua osatzen dute; federatzea oso garrantzitsua izan zen nire aitarentzat, ez daitezen herri isolatu bilakatu. Bilkura horietan erabaki ekonomikoak ere hartzen dituzte, proiektu hau martxan jarri edo baliabide horiek erabili, ekonomia pertsonen beharren zerbitzura jarritz. Horixe da ekonomia morala. ■



Illo berria sozializatzeko Beren Esku Dago mugimendu autonomia sortu du EH Bilduk.

EAEn ere 155a aplikatzeko eskatu du EH Bilduk, “Ertzaintzaz, ETBz eta Urkulluz libratzeko”

EAEn ganorazko 155 bat indarrean jartzea da Euskal Herriak bere askapen borrokaren fase honetan behar duena, adierazi du Zoraida Santxez de Andramari EH Bilduko estrategia politiko sakoneko arduradunak. “Hartara, fuera Urkullu, Ertzaintza eta ETB”, zehaztu du, “ez esan aurrerapauso galanta ez litzatekeenik”. Espainiako Gobernuak esan du proposamena ez dela

txarra, baina lanak izango lituzketela ez zaielako bururatzen nor ipini Urkulluren lekuan. “Ertzaintza eta ETBren kontrola hartzea ez litzateke arazoa”, gehitu du Moncloak, “orain bezala utzi eta kito”.

Iñigo Urkulluk operazioan bitartekariarena egiteko prest dagoela adierazi du: “Puigdemonti ziria sartzen adinako arrakasta edukiz gero, beldurrik ez”.

SAREAN ARRANTZATUA

Baaaaina hooorrelaaa
ez zeeeen gehiago
Puigdemont izangooooo



Hernaniko Lidl-ekoak zain
daude zu noiz eroriko



Pablo Iglesiasek bere burua kanporatu du Podemosek “estrategia nazionalarekin” bat ez egiteagatik

Pablo Iglesiasek eta Pablo Iglesiasek arteko tentsioak goia jo du aste honetan eta alderdi moretik kanporatu dute Iglesiasek. Iglesiasek (kanporatu dutenak ez, besteak) esan du onartezina dela orain arte alderdiko buruzagi izan denak Kataluniari buruz egindako adierazpen bat. Podemosen Madrilgo egoitza nagusian egin ditu adierazpenak Iglesiasek, bere antza duten maniki batzuek inguratuta. “Gure estrategia argi dago” azaldu du Iglesiasek, imintzio arraroak egiten hasi aurretik. “Visca Catalunya lliure!” gehitu du espasmo artean, “batasun nazionala” eta “gora Guardia Zibila!” oihukatu ditu, gero “Arnaldo, herria zurekin”; eta laguntza psikiatrikoa iritsi aurretik, denbora eman dio alderdiko exekutiban geratzen ziren azken kideak espulsatzeko. Zenbait iturrik ez dute baztertzen kanporatutako alderdikideek futbol talde bat sortzea.



Gripearen aurrean,
gogorrarena ez egin

Jarri txertoa



GRYPEAREN AURKAKO 2017ko TXERTAKETA KANPAINA

65 urtetik gora dituztenentzat, gaixotasun kronikoa dutenentzat
eta haurdun dauden emakumeentzat



Osakidetza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com